



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEAErakunde autonomaduna
Organismo Autónomo delEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELKARRIZKETA

**Onintza Enbeita
Maguregi:**
*«Aldaketa emozionala
interesatzen zait,
paralisi emozionala
gainditzea»*

ERREPORTAJEA

**Basoak kudeatzeko eredu
berri baten beharra
Basogintzaren atakak**

GIZA BALIABIDEAK

Hautaketa edo autoengainua?
Gaur egun enplegu publikoaren esparruan egiten den
“hautaketa” ri buruzko hamabi tesi (eta II)

RAFAEL JIMÉNEZ ASENSIO

GRAMATIKA

**Sektore Publikoko
Kontratuen Lege berria**

PATXI PETRIRENA

OSASUNA

**Bularreko minbiziaren
aurkako borroka**

MARÍA JM VIVANCO





bai,
berdin!

egun
on!

Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:

Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Xabier Amatria, Malen Amenabar, Kaxildo Alkorta, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Aritz Branton, Oihana Cabello, Miel A. Elustondo, Edorta España, Irene Fernandez, Rafael Jiménez Asensio, Ainitze Labaka, Luma, Maite Orue, Patxi Petrirena, Nerea Pikabea, Maria dM Vivanco, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

- 2 **Marraskia**
MALEN AMENABAR
- 4 **Pertsonaia**
Mikel Pagadizabal
NEREA PIKABEA
- 6 **Pasadizoak**
Behin eta betiko
KAXILDO ALKORTA
- 7 **Elkarriketa**
Onintza Enbeita Maguregi:
«Aldaketa emozionala
interesatzen zait, paralisi
emozionala gainditzea»
MIEL A. ELUSTONDO
- 14 **Erreportajea**
Basogintzaren atakak
MAITE ORUE
- [ARIKETAK]
- 19 **Informazio eta komunikazioaren teknologiak**
BOOKTEGI: guztion liburuak,
guztiontzat
ARITZ BRANTON
- 20 **Erreportajea**
M-8ak markatu ditu atzetik
datozenak
OIHANA CABELLO
- 25 **Giza baliabideak**
Hautaketa edo
autoengainua? (II)
RAFAEL JIMÉNEZ ASENSIO
- 28 **Leihatila**
«Içioqui dugu»
EDORTA ESPAÑA OCIO
- 30 **Gramatika**
Sektore Publikoko Kontratuen
Lege Berria
PATXI PETRIRENA
- 32 **Osasuna**
Bularreko minbiziaren aurkako
borroka
MARIA dM VIVANCO
- 34 **Denbora-pasak**
LUMA

MIKEL PAGADIZABAL,

GIDOILARIA ETA AURKEZLEA:

«Errespetu handiarekin joaten gara herrietara»

NEREA PIKABEA
KAZETARIA

Lege eta diseinu grafiko kontuak alde batera utzi, eta telebistan hasi zuen ibilbidea billabonatarrek orain hamasei urte umorearen bidetik. Geroztik, Euskal Irrati Telebistako makina bat saiotan ibili da, gehienetan gidoiak idazten, baina baita aktore lanetan ere. Azken urteotan, Orio Produkzioak etxeak ETBrentzat egiten duen *Herri txiki, infernu handi* saioan dihardu Zuhaitz Gurrutxagarekin batera. Euskal Herriko herri txikietak bizimodua eta hizkerak erakusten dizkigute igandero umorez zipriztinduta.

Lortuko ote dugu elkarrizketa hau serio egitea?

Bai, bai, ni nahiko serioa naiz, kameraren aurrean komiko xamar azaltzen baina ere. Ni ez naiz aktorea; ni, berez, gidoigilea naiz, eta une honetan, aurkezle lanak egiten ari naiz.

Despistatu eta kaskarin itxura horren atzean pertsona serio bat ezkututzen da orduan?

Pantaila aurrean egiten dudan pertsona horren antzekoa naiz. Baina ni ez naiz hain despistatua, eta oso serioa naiz. Nire etxekoek esango dute etxean baino barregarriago naizela telebistan!

Zuzenbidea eta publizitatea ikasi zenuen, ezta?

Bai. Gauzak buruz ikasteko ahalmena izan dut beti. Diziplinatua naiz, ikasten bakarrik ez, baita lanean ere. Lana bukatu arte ez naiz mahaitik altxatzen. Egiten ari zaren lan hori gustukoa baduzu, hori gertatzen da. Gogoko dut oso idaztea, eta erraz egiten ditut eserita zortzi ordu idazten.

Zeure buruarekin zorrotzegia, agian?

Batzuetan gehiegi. Gauzak ez direnean erabat ondo ateratzen, nahigabeak izaten ditut, eta buruari buelta asko ematen dizkiot. Oraindik kostatzen zait lane-tik deskonektatzea.

Txikitan izan duzu zaletasunik antzerkirako edo telebistan aritzeko?

Txikitan komikiak idazten nituen, marraztu egiten nuen, baina arlo artistikoan aritzeko sen handirik ez dut izan. Gero-ra, gidoigile izateko ikastaroak egin ditut eta trebakuntza jaso dut. Telebistan lan egiteko zaletasunik ez dut izan, zeren kasualitatez hasi nintzen lanean telebistan orain dela hamasei urte.

Nork erraztu zizun bidea telebistan aritzeko?

Anjel Alkainek deitu zidan *Wazemank* saiorako gidoiak idazteko. Nagore Aranbururekin lan egiteko aukera izan nuen, eta hark asko erakutsi zidan.

Etxean edo lagunartean, umoretsua al zara?

Nire kuadrilan badaude ni baino barregarriagoak, nik baino grazia gehiago daukatenak (barre artean)! Lagunartean nahiko irekia naiz, baina hortik kanpo nahiko barnerakoa.

Irekiagoa izaten lagundu dizu telebistak?

Telebistak eman dit aukera lan egiteko eta gauzak ikasteko, baina telebistako lanak ez nau aldatu. Betiko lagunekin jarraitzen dut eta betiko tokietan ibiltzen naiz. Telebistak ez du baldintzatu nire eguneroko bizimodua, eta espero dut aurrerantzean ere ez egitea. Villabonan oso gustura bizi naiz!

Bosgarren denboraldia daramazue *Herri txiki, infernu handi* saioarekin. Sekulako arrakasta izaten ari zarete.

Oso kontentu gaude, eta egia esateko, pixka bat harrিতa ere bai saioak izan duen onarpenarekin. Audientziak igotzen ari dira. Jendeari gustatu zaio saioa, hori entzuten dugu kalean.

Zein da, zure ustez, arrakastaren gakoa?

Formatu hau Danimarkakoa da, eta guk gure ezaugarrietara egokitu dugu. Danimarkako saioa nahiko basatia zen. Gu, aldiz, errespetu handiarekin joaten gara herrietara. Jendeak beren etxeko atea irekitzen dizkigu, eta, hori horrela izanda, errespetuz jokatu beharra dago. Behin etxera sartuta, adarra jotzen diegu, baina errespetuaren muga gainditu gabe beti. Saioak Euskal Herria ezagutzeko balio izan dit; sekula ez dut horrenbes-

te bidaiatu! Ikus-entzuleei gustatzen zaie ikustea jendea nola bizi den Nafarroan, Bizkaian, halako herritan...

Ezkutuan dauden pertsonak argitara ekartzen dituzue?

Umorez ziprizzintzen ditugu elkarrizketak, baina ez da komedia saio bat. Jendeak istorio tristeak ere kontatzen dizkigu, kontu oso interesgarriak entzuten ditugu.

Hizkera desberdinak, euskalkiak entzuten ditugu igandero.

Euskalki desberdinak entzuteko aukera izaten dugu, baina baita ere euskara batuan aritzen gara euskaldun berriekin. Hori guztia ondo uztartzen da saioan.

Nork idazten du gidoia? Protagonistekin izaten dituzuen elkarrizketak idatzita, adostuta egoten dira?

Erredaktoreek aukeratzen dituzte protagonistak, eta eurei buruzko informazioa pasatzen digute, eta, hori oinarri hartuta, guk geuk idazten dugu gidoia. Bat-batekotasunak toki gutxi du gure saioan. Dena lotuta egoten da.

Pertsona nagusiekin hitz egiten duzue normalean...

Bai, zeren gazteek baino istorio gehiago dituzte kontatzeko, baina tarteka gazteak ere elkarrizketatzen ditugu. Normalean, joko gehiago ematen dute nagusiek beren istorioekin eta ateraldiekin.

Zein dira umoretsuenak? Zein da lanerako errazena?

Ez nuke orokortuko. Nafarroan emaitza oso onak izan ditugu; nafarrak beste unibertso batean bizi dira, zentzu onean esan nahi dut. Segurtasuna ematen du saioa Nafarroan grabatzeak.

Lotsa gutxiago al dute bada nafarrek?

Beharbada bai. Gipuzkoarrak lotsatagoak dira. Bizkaian, berriz, nerbio askoko jendea dago. Arabarrena, gure kasuan, desberdina da, zeren jende gaztea gehiago elkarrizketatzen dugu. Iparraldean ere herri batzuetakoak isilagoak dira eta beste batzuetakoak, aldiz, animatuagoak.

Kaletarrek eta herritarrek berdin bizi al dute umorea?

Umorea unibertsoa da. Herri txikietan, gaur egun baserritarrek ADSL eta Movistar daukate etxean; ez da orain dela 50 urteko kontua. Eta Netflix esaten duzunean, «Anttoniok» barre egiten du, etxean baitauka. Beraz, nik uste dut herrietarako zein hirietarako erreferentziak berak direla. Globalizazio hori heldu da.

Umorea lantzeko orduan, ba al duzu ereduren bat?

Eredu profesional gisa, formatu amerikarrak gogoko ditut, *Saturday night show* eta horrelakoak, eta baita BBCn ematen dituzten hainbat saio ere. Espainian, *La vida moderna* eta *La resistencia* bezalako formatu berritzaileak entzuten ditut. Baina nik uste dut, gero, bakoitzak bere estiloa daukala.

Garrantzitsuena norberak bere ikuspuntua ezartzea da.

Zuhaitz Gurrutzagarekin batera aritzen zara pantaila aurrean. Ondo konponetzen zaretela ematen du...

(barre artean) Bada, ez diogu elkarri hitzik egiten! Egia esateko, oso ondo konpontzen gara! Aldez aurretik ez genuen elkar ezagutzen. Zuhaitzekin ondo konpontzea erraza da, eta neu ere pertsona erraza naizela esango nuke. Lantaldea txikia da, eta horrek ere laguntzen du.

Telebistan aritzeaz gain, beste lanen bat egiten ari zara orain?

Normalean, saio berriak egiteko proiektuak pentsatzen eta idazten aritzen naiz ekoiztetxearentzako. Gero, etxean, neure kontura ere idazten ditut gidoiak. Baina egia esateko, ez daukat denbora asko idazteko. Film labur bat idatzi nuen, baina normalean ETBrentzako lan egiten dut.

Oso zinemasalea omen zara...

Saioan egiten ditudan aipamen asko pelikuletatik hartutakoak izaten dira. Zinea eta literatura oso gogoko ditut. Nirekin zinemara joaten direnak aspertu egiten dira batzuetan, gogaikarria naizela esaten didate, filmeko ñabardura guztiak aipatzea gustatzen zaidalako.

Umore politikoa egingo zenuke?

Politikak aspertu egiten nau, baina gustatzen zait besteek egiten dutenean. *Vaya Semanita* saioan gidoilari gisa aritu nintzen, eta garai hartan tokatu zitzaidan umore politikoa egitea. Umore surrealistagoa, kostunbrismoari lotuta doana, gehiago gustatzen zait.

Amestea libre omen da, eta egin ezazu amets. Zer gustatuko litzaizuke egitea telebistan?

(barre artean) 65 urtera arte kotizatzeal. Nik aukeran nahiago ditut kamera atzeko lanak; erosoago sentitzen naiz gidoiak idazten eta proiektuak sortzen. Horretan segitu nahiko nuke.

Zertan ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Amak drogeria bat du, eta bere dendan lan egitea ez legoke gaizki. Batzuetan laguntzen diot. Lana baldin badago, edozein tokitan gustura arituko naiz. ■

Behin eta betiko

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

Nik uste denoi gertatzen zaigula baten bati edo toki jakin batean entzundakoa zein ikusitakoa, berez, asmorik gabe, gogora etortzea sarritan, toki hartatik pasatzean edo norbait hori ikustean. Niri behintzat bai. Esaterako:

Maltzaga eta Elgoibar bitartean, beti etortzen zait burura sei urte nituela, aita, nire hurrengo anaia eta hirurok Urkiolan eguna emanda, etxerako bueltan, trenea bidetik atera zela eta eskuinera egin zuela eta mendia hainbat aldiz jo geratu baino lehen. Eskerrak eskuinera egin zuen, ezkerrean behean ibaia dago han eta. Oinez joan ginen Elgoibarra trenbideari segika. Aitarekin ginen arren, beldurtuta, eta iluntzen ari zuen. Taldean gurekin zetorren adineko gizon bat –aita baino nahikoa zaharragoa– ez zen isiltzen: aurreko batean ere, ez dakit non, trenea bidetik irten eta sei lagun hil zirela eta horrelako kontuak. Hari inporta zitzaion umeen beldurra! Jaungoikoak zeruan gorde dezala desiratu behar al nioke?

Beste batean –hamabost bat urte izango nituen ordurako–, bizikletan zutik Zarautz kamioan dena emanda nindoala, katea eten eta hartu nituen bi zartadak –aurrenekoa gidaren kontra bularrean eta, bigarrena, pare bat balantza handi eginda, danba! lurraren kontra– ez ziren makalak izan. Ez nintzen asko poztu. Hurrengoan ere leku hartatik pasatzen naizenean, autobusean ez bada, etorriko zait bai burura.

Ez dut uste *komunio txikia* (lehen jaunartzea) egina nuenik –zazpi urte bete berritan egin nuen– gizon batek bere burua bota zuenean Zumaia kamioko

harraldean. Han joan ginen, saltaka, ikustera, eta oraindik gogoan dut hila jasotzeko angarila presaka zeramatenetako bi mutil gazteetako bat. Eta harralde horretara, lapetara-edo, joan izan naizen bakoitzean edo apartetik ikusten dudan bakoitzean irudi haiek agertzen zaizkit bizi eta argi.

Istripuak-eta, beldur uneak-eta, lotsa uneak-eta, behingoak izan arren, gogoan itsatsita geratzekoak dira. Baina baditugu bestelakoak ere. Esaterako:

Orain dela urte batzuk arte gure portuetako itsasontziak neguan bisigutara joaten ziren. Goizeko oso ordu txikitán irten eta, hurrera joaten zirenean, eguerdi aldera-edo portuan ziren; urrutirago ateratzen baziren, beranduago etortzen ziren, ilundu baino lehen hala ere. Urte zahar egunean ere itsasoratzen ziren sasoi hartan. Bazen gure herrian arrantzale pilotazale amorratu bat. Izena Joxe Mari. Zenbat urte izango zituen orduan? Nik hamabi-hamahiru... Joxe Marik hogeita hamarretik zenbat gora, ba? Urtezahar eguna zen. Itsasotik etorri, etxean bazkaldur arin eta, gu pilotan genbiltzala, frontoira etorri zen. Bagenekien haren lagunak etorritakoan lekua utzi behar genielako: «zaharren errespetua». Abarketa zaharrak janzen hasi zen eta gu inguratu egin gintzaizkion. Kontu kontari, halako batean hau esan zuen:

–«Bihar Urteberri!» –ondorengo hau erderaz:– «Año nuevo, vida nueva» –eta segidan biribil-biribil:– «Mozkorra galanta!».

Ez lehenago inoiz harrapatu ez zuelako, seguru! Harrezkero, Joxe Mari ikusi eta hark orduan esana belarri barruan entzutea bat izaten nuen. Hil zen.

Gailego gazte sasoiko bat aldapan behera bizikletan. Laster errebuelta zuen. Guk –hiru ginen, ordurako haziak, ez mutil koskorrak– ikusten genuen nola zetorren, abidan eta errebuelako horma jo behar zuela, eta esan ere egin genuen «frenatzen ez badu, hartu behar dik... hartu behar dik...», eta danba!, paretaren kontra. Ezkutatu egin ginen, berak gu ez, baina guk bera ikusteko moduan. Bizikletak etzanda behera txirristan jarraitu zuen metro batzuetan. Gailegoak egin zuen lehenengo gauza: inguruan inor bazegoen begiratu. Gu beste inor ez zegoen han eta ezkutatuta. Ez gintuen ikusi. Hala hobe, horrelakorik gertatuz gero, inori ez zaio gustatzen inork ikusterik eta; ikusi izan bagintu, laurok lotsatuko ginen, bai gailegoa bai geu. Leku hartatik oso gutxitan ibiltzen naiz, baina bakoitzean hura gogora.

«Zer ikusi, hura ikasi» esaera zaharra, badakit gure bikarioak (parrokoak) sermoi batean esan eta esanda ikasi nuela. *Apurtu* hitza, berriz, gure herriko jaietan erroskilak saltzera etorritako andre bati. Neska-mutil koskorren artean hau zabaldu zen: «Hi, andre horrek ez dik/din esaten *hautsi*, *apurtu* esaten dik/din», eta andrearengana taldetxoan joan behin eta berriz, eta lehen galdetu ez zion batek, denok bere inguruan ginela: «Aizu, zuk nola esaten dezu *hautsi*?». Andrea ondo igarrita zegoen zer nahi genuen, eta *apurtu* erantzuten zigun jator-jator. Eta guk ume barrea.

–«Ipuriak!» (ipuinak, kontuak) esaten zuen gure osaba batek orain artekoak bezalakoak entzunda. «Ipuriak», ba. ■

ONINTZA ENBEITA MAGUREGI

«Aldaketa emozionala interesatzen zait, paralisi emozionala gainditzea»

MIEL A. ELUSTONDO – ZALDI ERO

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi zuen 2018ko abenduan

Onintza Enbeita Maguregik (Muxika, Bizkaia, 1979). Bertsolari ez ezik, kazetari, baserritar, feminista, politikari ere bada. Txapela batek hainbat buru estaltzen ditu beraren kasuan. Eta, beti, ahaldundua da. Madrileko politika giroan zaildu eta ahaldundua. «Han ikasi nuen esaten: ‘Onintza, zure iritziak inorenak beste balio du!’ Horrek ikaragarri balio izan dit bertsoarako». Bidea egin du, eta txapela janztera heldu.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi zenuen iazko abenduan. Zer eman dizu txapelak?

Lehenengo, aitortza. Nork bere buruari ematen diona ez ezik, ikusleek eman-dakoa. Eta, aitortzarekin batera, zilegitasuna. Hogeitaz hamar urte daramatzat bertsotan eta, tarte horretan, etengabeko garapena bizi izan dut. Txapela ez da kasualitatez etorri, hogeitaz hamar urteko lanaren ondorio da. Aldi berean, kontziente naiz txapela arratsalde batean jokatzen dela. Da irabazten edo galtzen. Nik, orain, horixe esaten diot neure buruari: «Hogeitaz hamar lan egin duzu, lan ona, eta horrek emaitza hauxe ekarri dizu. Txapelduna zara». Niretzat, inportanteena da ispilu aurrean jarri eta neure buruari zilegitasun horixe aitortzea. Orain Onintza Enbeitak ez ezik, Bizkaiko txapeldunak ere egiten du berba. Horrek gauzak aldatu egiten ditu.

Eta irabazi izan ez bazenu?

Seguruenik berdin izango zen, ze ni aho-berro samarra izan naiz beti, ezin naiz inoiz isilik gelditu, eta pentsatzen dudana esaten dut, bai bertsolaritzaz eta bai beste gai guztien gainean. Egia da, hala ere, orain beste ahalduntze batetik esaten ditudala gauzak.

Txapelketa egunaren hurrengoan, «Biharamona» zutabea idatzi zenuen *Berria* egunkarian.

«Abenduak hamasei ditu gaur» hasi zinen delako zutabea idazten. Lerro gutxitan, egun hartako Bilbo kontatu zenuen: Kale Nagusia, Athletic, Barrenkaleko giroa, Areatzako umeak, Sabino Aranak epaitegiari bizkarra emanda jarraitzen duela, Ledesma, Guggenheimeko turistak eta turista antza duten bertakoak, Santutxu eta Otxarkoaga... Zutabearen amaieran, kolpea: «Eta agian bat, edo bi asko jota, Otxarkoaga edo Errekaldeko zoko batean, bertso ajez esnatuko dira. Eta hor ibili ginen gu, mundua Miribillan hasi eta amaituko balitz lez».

«Orain Onintza Enbeitak ez ezik, Bizkaiko txapeldunak ere egiten du berba»

Askotan esan dut hori. «Gu hemen gaude, gure bizitza jokatuko bagenu moduan, baina bihar ere irtengo du eguzkiak, eta munduak jarraituko du. Gure urrunekoa ez den jende asko ez da kontziente gu zer jokatzen gauden, txapelketa. Erlatibiza dezagun hau dena!». Jakina, zutabea idatzi nuenean ez nuen pentsatzen irabaziko nuenik. Hala ere, idatzi nuena errealitatea da. Txapela irabazi nuen, gauza simbolikoa, ze ez zara kalean txapela jantzita ibiliko; baina mundu txiki batean erreferente bihurtu naizela ematen du, nahiz eta mundu txiki horren barruan mundu txikiago batzuk badauden, eta horietan bizi direnak ez diren jabetu nire txapelaz. Horregatik esaten dut erlatibizatu egin behar dela. Galtzea erlatibizatu behar da, eta irabaztea ere bai!

Inondik ere, finalari aurre egiten diozuen bertsolariok lagun kuadrilla handi bat osatzen duzue: batak besteari egiten dizkiozuen konplimentuak dira erakusgarri.

Bertsolaritza jende zoragarritz beteta dago, ez zoragarritz beste. Kuadrilla handi bat gara bertsolariok, baina hor denetarik dago, hala filiak nola fobiak. Ez gara lagun min kuadrilla bat, baina oholtzara igotzen garenean asmo kolektibo bat aurrera atera behar dugun zortzi indibiduo gara. Eta, horretarako, elkar babestu behar dugu, eta finalera lehenengo aldiz heldu dena, zaindu. Eta finalean hainbat urte kantatzen daramatzanari, errespetua erakutsi. Eta faboritua, lagundu; presioa kudeatzen, adibidez. Joan den udazkeneko Bizkaiko txapelketan horixe egon da, babesa eta laguntasuna.

Bertsolari adinekoek zer esan dizuten jakin nahiko nuke: enbeitatar Moisesek, Abelek, Jonak, edo Deunoro Sardui batek, esaterako...

Nik uste dut adin batetik gorako bertsolari askok gure saioak ikusi eta gauza askorekin *flipatu* egingo dutela. Hainbeste besarkada, hainbeste negar eta hainbeste historia!... Moisesek eta Abelek, esate baterako, ni tartean nagoenez, ez dute ezer esaten, baina egia da gauzak aldatu egin direla. Beti esaten diet: «Zuek, enbeitatarak, paralitiko emozionalak zarete!».

Paralitiko emozionalak?

Ez nuen nik asmatu. Hertzainak-ek kantatzen zuen, Itxaro Bordaren letran: «Paralisi sentimentalak joa naiz eta». Uste dut euskaldunon «aurrera egin behar da!» esaldi zikin hori ez dela zuzena. Beharbada, heldu da momentua dena ez gordetzeko. Txapelketan zegoen maitasunak Moises eta Abel harrituko zituzkeela pentsatzen dut. Jon han zegoen, berak ipini zidan txapela, eta hango maitasunak hunkitu zuela esango nuke. Badira bertsolari batzuk —ez oso adin handikoak, plazari utzita daudenak, hala ere—, inoiz babes faltaz hitz egin dutenak. Ez dakit zure bertsolari zaharrek zer esango luketen, baina bai nik esango niekeena: «Lasai, ez da ezer aldatu. Berdin-berdin etorri behar da hona eta egin behar da bertsotan. Berdin-berdin da lehia, eta gogotik lehiatzen gara, baina ez da ezer gertatzen inori poza erakustearren, berak irabazi duelako, edo pena erakustearren, akatsa egin duelako. Gure hauskortasuna, edota zaurgarritasuna, ikusten badira, ez da ezer gertatzen! Gure barruko sentimenduak dira!». Horixe izan behar da gure mezua, nire ustez.

Ez da oraingoxea Joseba Zulaikaren liburua, bertsoaren jokoaz eta jolasaz ari zena.

Beti esaten dudana, «Hemen, broma gutxi!». Ez dut jakin gura Euskal Herriko

AMA

«Rosa Mari Maguregi dut ama. Ni naiz Onintza Enbeita Maguregi. Beti 'Enbeita' eta 'Enbeita', baina maguregitarrek ere badute historia, polita, eta gogorra. Ni, esaterako, hiru borroka galdutatik nator: Onintzarena, enbeitatarrena, eta maguregitarrena. Baina oso harro nago. Txapela irabazi nuenean, amak esan zidan: 'Lortu duzu! Esan nizun nik, helduko zela eguna!'. Eta, gero, txantxetan, esan zidan: 'Pentsatu dut azkeneko agurrean hasiko zarela feminismoaz... Botako du, botako du... Baina ez, ez, oso ondo!'. Eta erantzun nion: 'Baina, ama, ahaldundu naizela esan dut, oso mezu inplizito inportantea bota dut!'. Eta berak, orduan: 'Bai, baina *light!*'. Oso pozik ama, oso pozik ahizpa biak ere, infinitu pozik aitta».

finalean pasatzen den estutasuna! Nik Bizkaikoaren berri dakit, baina azkeneko aste hori, azkeneko goiz hori, ez dugu ematen gero oholtzara igo eta iji-aji ibiltzeko. Kontzentrazioa eskatzen diogu geure buruari! Niri, esate baterako, Bizkaiko finaleko goiza luze eta gogor egin zitzaidan. Eta igarotzen dira urte bi, eta gero eta gogorragoa da tentsio horri eustea! Hori jasan eta gero, ez duzu esango: «Berdin dit zortzigarren eginda ere!». Ez. Zortzigarren egin behar badut, egingo dut zortzigarren. Baina ahal badut lehenengo egin, ez dut zortzigarrenik egingo! Jolas gutxi, beraz! Gainera, pisu sinboliko handiko saria dago jokoan: txapela! Nire kasuan, lehenengo andrea Bizkaian txapela irabazten duena. Karga sinboliko hori eramaten jakin behar da.

Ez dago jolasik, orduan?

Bai, jolasa ere onartu behar da bertsoan. Kirolean, pilotariak berak botatzen du pilota txapara, edo txapapera. Pilotariak beste inork ez du bota. Bertsoan, berriz, gure bizitzako bertsoarik onena bota genezake, baina bestek epaituko du gure bertsoa, zilegitasun osoz. Ehuneko lauro-

gei ez dago gure esku, bestek puntuatzen ditu gure bertsoak, bestek erabakitzen du zeri kantatu, ia bestek erabakitzen du noiz egin behar dugun dejada. Jolasaren zatia onartu egin behar zaio txapelketari, joko ahaztu barik. Oreka da txapelketa.

Txapelak beste egoera batean jartzen zaitu Euskal Herriko Txapelketa Nagusiari dagokionean?

Oraindik Bizkaiko beste txapelketa bat ere jokatu behar da Txapelketa Nagusia baino lehen! Baina nire aldartea aldatu egin da. 39 urterekin txapelketari modu dotore batean zelan amaiera ipini pentsatzen egotetik, berriro merkatuan sentitzera heldu naiz orain. Ez dut Txapelketa Nagusia irabazteko moduan ikusten nire burua; ezta gutxiago ere. Beste liga bat da hori! Baina ikusita aurreko Txapelketa Nagusian lehenengo errondan kanporatu nindutela, orain hirugarren erronda arte lehiatzeko moduan ikusten dut nire burua. Baina oraindik asko falta da!

Bertso txapelketako bertsoarik ez da kantatzen orain. Zuen osaba Jonek 1983an kantatutako bederatziko hura eta! «Eus-

«Jolasaren zatia onartu egin behar zaio txapelketari, joko ahaztu barik»

kalduna dut nere / izena ta izana / eta euskaldun nere ama laztana...».

Dena aldatu da ordurik hona. Mercedes Sosak kantatzen zuena: «Todo cambia, cambia lo superficial, cambia también lo profundo» (*Dena da aldatzen, aldatzen da azala, aldatzen da mamia*). Nire kantatu kutunetako bat! Oso gauza gutxi daude inoiz aldatzen ez direnak. Norbera ere aldatu egiten da! Bertsolariak ez dira lau urterik behin Martitzetik Lurrera lehiatzera datozen kantariak: hemen bizi gara, hemengo arazo, gatazka eta festa denetan parte izan gara. Gu jendearekin batera goaz. 1983an frankismotik esnatu berria zen Euskal Herrian, ilegalizazio orokorretik egoera legeztatzerara heldu zen herri hau. Nortasun nazionalaren gorai-patzea oso normala zen, bertsoan, musikan, artean eta arlo denetan. Ez gara orduan baino libreago, ez politikoki, ez geografikoki, baina gizartea aldatu egin da, bestelako kezka sozialak ere hor dira. Kantatzeko estiloa aldatu da, eta mezua emateko modua ere bai.

Osabak [Jon Enbeita] ipini zizun txapela...

Beste norbaitek ipini izan balit, beharbada, azkeneko bertsoan ez nintzen joango aitaita Balendin kantatzera. Baina momentu horretan bera aipatu behar nuela pentsatu nuen. Ez nuen ez presorik ez feminismoarik zuzenean aipatu, eta ez nintzen inorekin zorretan sentitu. Beharbada, orain dela hamabost urte bai, sentituko nuen zorra. Orain ez. Gizartea bera aldatu da, eta gizartearekin batera, gu denok.

POZA

«Gure ingurukoak benetan dira kontziente bertsolari batentzat zer den txapelketa. Benetan dira kontziente noiz kostatzen zaigun asko, noiz gauden momentu onean... Hori guztia eraman egin behar da. Etxean inoiz inork ez dit esan: ‘Gaur final eskasa egin duzu’. Kritiko gogorrik ez dut inoiz eduki, baina gauzak ez dira beti ondo irten. Txapela irabazita, berriz, poza partekatzeko aukera izan dut, eta oso ondo. Beti da pena, ze irabazi banu orain dela urte bi, amaren ama biziko zen, eta joan den maiatzean hil zen! Eta irabazi banu ez dakit noiz, gure lehengusu Ardatz biziko zen. Beti babestu nauen jendea, beti nire ondoan egon dena. Injustizia horiek dauzka bizitzak: inoiz ez gaude denok. Baina Euskal Herria independente izango da egunen batean, eta orduan ere ez gara horren alde borroka egin dugun denok egongo. Falta direnak bide horretan gurekin eramaten asmatu behar dugu!».

«Txantxetan, beti aldarrikatzen dut gu gehiago garela Txotxo Jauregiren ondorengoak, Urretxindorrenak baino»

Aitaita Balendin Enbeita bertsolari handia aipatu duzu. Usteko nuen Urretxindorra kantatuko zenuela... «Hitzak bakarrik indarge dira / egipenak zinaldari / nor zelako dan bere egipenak erakusten dabe argi...».

(Onintzak berak amaitu du bertsoa) «Euskaldun batek Euskal Herrian / beti erdara badagi / alferrik esan ‘Soy vascongado’ / erdaldun hutsa da hori»... Atzekorik ezin dut ukatu, baina nire bertso historia bizian agertzen den lehenengoa Balendin da, aitaita. Gurekin bizi zen, ezagutu nuen, zazpi urte neuzkanean hil zen. Nire giza geografia Balendinekin hasten da. Aurretik egon direnak ez ditut ukatzen, jakina. Badakit Urretxindorra izan zena, Txotxo Jauregi izan zena, plazara irtetea ukatu zieten andreak izan direna, baina nire historia Balendinekin hasten da.

Nor zen Txotxo Jauregi?

Balendinen aitaita, Muxikako alkate ere izan zena garai hartan. Gizon berezia. Anekdotak alaiz beteta dago Txotxo Jauregiren bizitza, Urretxindorrenaren aldean. Urretxindorra Txotxo Jauregiren estiloko bertsolaria zen hasieran: tabernakoa. Sabino Arana aurkitu zuenean, berriz, aurreko sormen lan guztia erre zuen Urretxindorrek. Jendeak buruz hartu zituen bertsoak baino ez zitzaizkigun gelditu harenak. Oso pertsonaia diferenteak dira, bi muturrekoak. Bata, tabernan bizi zen, bizi iraupenaren aldeko bertsolaria zen, eta apustularia, baina alkate izatera ere heldu zen. Gizon argi

samarra, beraz. Urretxindorra, aldiz, politikari eta erlijioari guztiz emana bizi izan zen. Balendinen aurrekari bi dituzu, oso diferenteak bata bestetik. Gero, Urretxindorrek anaia bat ere bazuen bertsolaria, Venezuelan ibilitakoa.

Nahaste-borraste horretatik zatoz zu.

Bai, eta nik, txantxetan, beti aldarrikatzen dut gu gehiago garela Txotxo Jauregiren ondorengoak, Urretxindorrenak baino. Bizitza beste era batera hartzeko joera dugulako, batez ere. Dena ezin da tragedia bihurtu, dena ezin da drama izan.

Enbeitatarretan, zure aita omen da bertsotan egin ez duen bakarra...

Ez da egia, aita ere ibilita dago-eta bertsotan; baita txapelketan ere. Bestalde, badute arreba bat, Libe, andrea izan zelako plazara irten barik gelditu zena. Gainerakoan, ibili, uste dut denak ibili direla kantuan: Kepa, Abel, Libe, Moises, Joseba Andoni eta Jon. Beharbada, Kepa ez zen ibiliko plazan, anaia zaharrena. Baina gure aita bai, ibili zen. Hala ere, utzi egin zuen, urduritasunagatik. Ez zuela konpentsatzen, zioen. Gainerako senideek segitu egin zuten.

Bertsolaria, abertzalea, politikaria, feminista... dituzu Internetek erantsiak dizkizun tituluak. Kazetaritza ikasi zenuen, eta Agroekologia ikasketak ere eginak dituzu!

Baserritarra naiz jaiotzez eta bizitzez. Serio hasi nintzen ortuan beharrean, telebistaren deia jaso nuen arte [ETB1eko *Gure doinuak* saioaz ari da]. Azkeneko urtean nahiko utzita daukat ortua. Hala ere, postua daukat Gernikako azokan. Joan den udazkenean telebista saioko grabaketak egin behar izan ditut, eta bestek egin du tarte horretan nire lana.

Baserri mundua desagertua da bertsotik.

Bertsotik eta gure eguneroko bizitzatik. Bat-batean, ahaztu egin zaigu nondik

jaten dugun. Jendea berbetan entzuten duzu, bateko ekologikoa eta besteko Brasil, Argentina eta Polonia, eta batzuetan mahaian kolpea jo behar izaten duzu: «Ei, hemen baserritar asko estu eta larri bizi dira, biziraun baino ez dute egiten!». Eta Abiadura Handiko Trena, edo halako errepidea, edo zementua zementuaren gainean botatzen dugunean, zer galtzen ari garen ez diogu geure buruari galdetzen. Ahaztu egin zaigu zer den landa mundua, eta horrek, batetik, bukolizazioa ekarri du, eta, hortik, azoken masifikazio faltsua, adibidez. Urriko azken asteleheneko azoka, San Blas azokak eta gainerakoak. Bestetik, jendeak erosten du baserri zahar bat, konpontzen du eta pentsatzen du ortura behin joanda jeneroa jasoko duela. Baserriak zer gura duen esan ez gara ohartzen. Guk ikasi genuenez, bata da baserrian bizitzea, eta bestea, berriz, baserriaren jabe egitea, baserriak dakarren lan guztiaz arduratzea. Hori desagertu egin da gure bizitzatik, eta inor baserritik bizitzeko ahaleginean, eta kalean normal jantzita, ikusten badugu, arraro egiten zaigu. Ematen du baserritarra bizirautea kondentatua dagoela.

Zer diozu nekazaritza politiken gainean?

Egin diren politika instituzionalak negargarriak dira. Aralarreko pistak eta baserritik bizi nahi baina lurrik ez daukan gaztearen egoerak nekazaritza politika bera dute abiapuntu. Nekazaritza eredu industrialak bultzatu da, eta baserritarra igaro da buruaskia izatetik dirulaguntzen menpe bizitzera. Hori injustizia handi bat da, eta injustizia handia izateaz gainera, erakusten du gure inguru berdeaz egin nahi dutena. Azkeneko hogeita hamar urtean nekazaritza politikak diseinatu dituztenek oso ondo dakite zer nahi duten, nora heldu nahi duten. Eta, horretan, oposizioa –eta gizartea, oro har– oso atzetik gabiltza. Oso berandu ari gara ohartzen zer galtzen ari garen.



«Oraindik, gutxi gara mundua alda litekeela sinesten dugunok»

Politikari izana zara zu zeu. Saiatu zinen nekazaritza politika bestelako bat egiten?

Saiatu, bai, baina zoritxarrez nekazaritza ez da lehentasuna alderdi batean ere, eta gurean ere ez zen izan. Maite Aristegirekin egon nintzen Madrileko garaian, eta gaur egun arazo bihurtu diren auzi asko aurreikusitako zituen berak. Saiatu zen aurre hartzen, baina ez da lehentasuna. Eta, orain, jendea elikadura burujabetzaz berbetan hasi denean, jakin nahiko nuke benetan zer esan nahi dugun ohartzen ote garen, zer nolako nekazaritza politikak asmatu behar ditugun horretarako.

Zer iritzi duzu politikaz?

(Barre txiki bat egin du) Dena da politika. Ogiaren prezioa politika da, KPIren igoera politika da, poteoa bera politika da. Sistema politiko-ekonomiko baten ondorio da gure bizimodu guztia. Horretaz ohartzen garen, ez garen, ikusi nahi dugun edo ez, besterik da, baina dena da politika. Politika lan instituzionalari dagokionez, gauza bi. Bata, alderdi politikoei oraindino asko falta zaiela pertsonak beren programen erdian ipintzeko. Bestelako gaiak jartzen dituzte beti eztabaidaren muinean, eta egunen batean pauso bat aurrera eman eta geure buruak jarri beharko ditugu eztabaidaren bihotzean, ze gu geu gara gaur eta hemen bizi behar dugunok. Bestea, orain dela ehun urte presidente batek bere eskuan zeukan botere guztia. Gaur egun, ez. Orain, gobernu bateko presidentek ez dauka botererik: botere ekonomikoa du gainean, botere militarra, botere erlijio-

soa –Espainiaren kasuan, behintzat... eta gobernuak edukitzeak boto bat baino ez du ematen pornografia horretan. Alde horretatik, debaluatuta dago politika. Politikariak, teoriak, gizartea aldatzeko eta hobetzeko proposamenak egin behar ditu politika lanean dabilenean eta botere legegilerak heldu denean. Baina ez dago horren kontzientziarik, inork ez du politika instituzionalean parte aktibo hartu nahi. Askok kostatzen da horretarako jendea topatzea, desengainatuta dago jendea. Ustelkeria kritikatzeko da, eta, aldi berean, ezer ostu ez dugunok *pringatu* hutsak gara askoren begietara. Debaluazioa oso handia da.

Ez zara inori bihotz emateko moduan ari.

Gauzak aldatu litezke, eta politika bizitzeko moduak ere asko dira. Errealitatea hori da; hala ere, oraindik gutxi gara mundua alda litekeela sinesten dugunok. Amets egiten segitzen dugunok gutxiengoa gara momentu honetan.

Kausa galdu askoren aldeko militantea, poetak esan zuenez.

Borroka pila galdu ditugu, edo ez ditugu irabazi. Horra gure hizkuntzaren egoera, adibidez. Tamalgarria da, ze alderdi abertzaleentzat euskara helburu estrategiko izan balitz, orain ez ginatete egoera honetan egongo. Eta abertzale gara, eta alderdi horietan militatu dugu, eta euskara izan da gure bizitzaren ardatza. Kausa galduak, esan duzu. Eta zenbat borroka egin dugun Abiadura Handiko Trenaren kontra, espolio horren kontra, eta ia eginda dago! Hamaika borroka! Ez ditugu irabazi, baina ez dugu amorerik ere eman! Ni bizi naizen mundua ez da nik ehuneko ehun nahiko nukeena, baina, arraioa!, Onintza ehuneko ehun Onintza da, kontraesan eta guzti! Eta, bestalde, zer edo zeri heldu behar diogu. Errazena litzateke ezeri jaramonik batere ez egitea, gaztelaniaz berba egitea, ezer-

tan ez saiatzea. Baina bestelako erabakia hartu dugu, ez etsitzea, gure nortasunari eustea. Bada zer edo zer! Dena ez dugu galdu, ezta?

Kazetari zaildua zara, hamaika hedabidetan ageri da Onintza Enbeita Maguregi. Telebista aurkezle lanetan, zein idatzizko kolaborazioetan... Zenbat lan egin behar izaten ditu gaur egun kazetariak, biziko bada?

Askok, zorionez eta zoritxarrez. Zoritxarrez, diot, ze kazetariarena da oraingo lanbiderik prekarioenetako bat. Horrek min ematen dit, gizartea bideratzeko tresna asko dauzkalako kazetaritzak. Kazetariaren egoera prekario hau ere ez dakit kasualitatea den. Zorionez, diot, ze derrigortuta gaude beti alerta egoten, etengabe ikasten. Nork esan behar zidan niri 40 urterekin telebista saio bat aurkeztuko nuela! Nire buruan ez zegoen horrelako planik! Baina horretara jarri behar izan nintzen, nire buruari esanez bezala: «Ingurukoek bizitza bideratuta daukate eta ni, aldiz, zer edo zertan berriro hasten noa». Hori ona da norberarentzat, baina kazetariaren lana hain prekario izateak min ematen dit.

Zergatik, min?

Ez dizulako zure lana ondo egiten uzten. Ezin da. Egunkarian egunero idazten duen pertsona batek egundoko analisia egin behar du egunean sortzen diren albiste guztien artean. Aukera egin, datuak

«Kazetariarena da oraingo lanbiderik prekarioenetako bat»

egiazatu, garrantzia zeri eman erabaki, idatzi... Ordainsaria, berriz, miseralea da. Eta ez euskarazko hedabideetan bakarrik, baita gaztelaniazkoetan ere. Badakit hori, kazetarien berri badaukat-eta. Hiru-lau enpresa handik irentsi dute dena: telebista kanalak, egunkariak, irratia... dena hartu dute, eta zelako kazetaritza egin erabaki nahi dute. Penagarria da. Zer edo zer egin beharko dugu. Kazetarien sindikatua organizatu edo!

Feminismoaz jardun dugun ez dakit. Alegia, elkarriketan zehar feminismoa presente egon den, edo esplizitatu behar dugun.

Onintzarekin batera doa feminismoa. Beti. Feminista da Onintza, militantea, ez emakume talde jakin batekoa, baina militante feminista naiz militatzen dudan leku denetan. Hitza agertu edo ez, beti daramat feminismoa aldean. Besterik da esplizitatzea, eta batzuetan komeni da esplizitatzea ere, ze teoria feminista da gaur egun ezkerri gizaritearen eraldaketarako klabeak eman dizkiona. Feministak hasi ginen ahalduntzeaz hitz egiten, eta ekonomia feministaz, bizitza erdigunean jartzeaz, interseksionalitateaz, zaintzaz... Eta horietaz jardun dugu elkarriketa honetan. Hasierara itzulita, bertsolaritzara, bertsolariok bat bestea zaintzeaz egin dut berba. Feminista izan ez banintz, beharbada ez nuke beti presente edukiko zaintzaren garrantzia. Gaur egun, berriz, guztiz presente daukat, oso pozik ere. Eta txapela irabazi eta gero ere, nahita azpimarratu dut zaindu nahi hori. Eta harrizkoa zela pentsatzen nuen pertsona batek mezu bat bidali zidan, esanez hunkitu egin zela txapelketan. Ez dago txarto. Mundua aldatzeko modu asko daude: aldatu behar dugu ekonomia, aldatu behar da politika, gure kasuan aldatu behar da geografia... Jon Lopategik esaten zuen moduan, portugaldarrek mapan daukaten marra hori eduki behar dugu euskaldunok. Mundua aldatu behar da, baina,

oroz gain, aldatu behar dira pertsonak, emozionalki, eta pertsonak aldaketa horren aurrean kokatzen ere asmatu behar dugu. Hori ere gizaritearen eraldaketa da. Niri aldaketa emozionala interesatzen zait, paralisi emozionala gainditzea, eta konplexu barik onartzea batzuetan haus-

«**Militante feminista naiz militatzen dudan leku denetan**»

korak garela, eta beste batzuetan munduan gu baino indartsuagorik ez dagoela sinestea. Hala ere, indarririk ez daukagunean, kolektibo bat behar dugu atzetik guri bultza egiteko. Horretaz egin dugu berba elkarriketa honetan? Bada, bai.

Txapela irabazi duzu. Orain zer?

Orain txapela defenditzea dagokit. Horixe esaten diot nire buruari. Bestalde, buruan dabilkidan kezka da noiz arte ibiliko naizen telebistan, noiz arte izango naizen hain pertsona publiko... Ezkutatzeke modu dotorea antolatzen nabil. Hala ere, erabakia hartu arte ez dut ezer azalduko. Horrela egiten dut normalean. ■

JATORRIZKO IZENDAPENA: ENBEITA

«Nire kasuan jatorrizko izendapena izan da Enbeita. Nerabezaroen, denok hil behar dugu gure aita, sinbolikoki. Eta niri ere aitta hiltzea tokatu zitzaidan. Nire kasuan, aitta hiltzea izan zen herenaitaita hiltzen hastea! Serieko hilketak egin behar izan nituen! Nire borroka izan da Onintza izatea, jendeak ulertzea ni Onintza naizela, ez Jon, ez Balendin, ez Moises, ez beste inor, Onintza baino. Orain, Onintza naiz, eta Onintza izatea lortu dudanean ulertu dut zer garrantzi duen Enbeita izatea, zer garrantzi duen Maguregi izatea, eta zer garrantzi eduki duten, ni Enbeita eta Maguregi izan nadin, bidean geratu diren abizen guztiek, ze izan ahal nintzen Ealo, izan ahal nintzen Izagirre, izan ahal nintzen Ortuzar, edo izan ahal nintzen Alzueta. Gauza asko galdu dira bidean. Ni sintesi bat baino ez naiz, eta sintesi horretaz oso harro sentitzen naiz».

Basogintzaren atakak

MAITE ORUE
KAZETARIA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako basoen kolore berdea ordezkatzan ari dira tonalitate marroia edo gorrixka. Hango eta hemengo mendietako pinuak ihartzen ari dira, bortizki erasaten ari diren hiru onddoren eraginez. Banda marroia (*Lecanosticta acicola*) eta banda gorria (*Dothistroma pini*, *D. septosporumeta*) izenekin ezagutzen dira; hain zuzen, pinuek hartzen duten kolorearengatik. Iazko udan izandako hezetasun handiak eta beroak lagundu egin zuen izurritea hedatzen, eta 2018. urtearen amaieran pinuen % 33,15 zeuden erasanda. Egurraren sektoreko eta administrazioetako arduradunak konponbide bila ari dira aspalditik; sendabiderik izango den jakin gabe, ordea.

Azken hamarkadetan, errentagarritasun ekonomikoa handitzekotan, lurjabeek hazkunde azkarreko espezie aloktonoak landatu izan dituzte: pinuak eta eukalip-toak. Monolaborantza horren ondorioz, urteen joanean espezie autoktonoak geroz eta urriagoak dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Orain, pinuei eragiten dien izurritearen krisia dela eta, eragile askok uste dute sasoi dela baso politikaren inguruko eztabaida sakona egiteko.

Bitartean, aipatutako onddoak «inoiz ikusi gabeko hedatze ahalmena» daukala eta «ezohiko» egoera baten aurrean gaudela iritzita, Basogintzako Aholkularitza Lantaldea eratu zuten administrazioek 2017ko urrian. Gerora, iazko urriaren 18an, euskal basogintzaren sektoreari emandako babes berretsi zuten hiru foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, pinuen gaitzari aurre egiteko plan bat abiaraztearekin batera. Egun hartan erakundeek adierazi zuten, bi helburu nagusi dituzte: «Batetik, euskal basogintzaren sektoreak bere nortasun ezaugarri eustea, azken hamarkadetan lehiakortasuna eta jasangarritasuna bezalako balioen inguruan landutako ezaugarriak baitira; bestetik, basogintza jarduera gure mendietatik desager dadin saihestea, horrek oso ondorio kaltegarriak izango lituzkeelako, hala nola suteak edo galera handiak biodibertsitatearentzat».

Hiru esparrutan jardungo dutela iragarri zuten administrazioek: «Gaitzari eta horrek hiru lurraldeetako baso eremuetan eragiten dituen kalteei buruzko ezagutza sortzen, gaitzari aurre egiteko neurriak

zehazten eta sektorea berreskuratzen». Besteak beste, oxido kuprosoa erabiliz aire bidezko tratamendua egiteko baimenak tramitatzen ari direla zehaztu zuten aldundiak, «emaitza onak lortu baitira beste zenbait lekutan». Ekologistak Martxanek, ordea, zentzugabetzat jo zuen neurri hori, «ingurumenaren kontrako atentatua» dela iritzita. «Ez du arazoa konpontzen, ez baitu arazoaren jatorria ukitzen». Elkarte horren arabera, funtsezko espezie arrotzen landaketa masiboa da arazoa, eta, gainera, «oxido kuprosoa espektro orokorreko biozida gisa sailkatutako gai kimikoa» izanik, «mendi eta erreken erailketa» suposatuko luke berorren erabilerak. Hala, «bertoko basoen alde egiteko momentua» iritsi dela esan zuen Ekologistak Martxanek.

Edonola ere, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ezetza eman dio pinuen gaixotasunaren aurka aire bidezko tratamendua aplikatzeari, eta aldundiak erabaki horren aurkako errekurtsioa aurkeztuko dute; izan ere, uste dute tratamenduak ez diola ingurumenari kalterik egiten eta eraginkorra dela. Bien bitartean, Neikerrek sortutako beste tratamendu experimental bat probatuko dute. Datozen hiletan, oxido kuprosoarekin egingo dute tratamendu hori, airetik beharrezko lurretik, eta 1.050 hektareatan aplikatuko dute. «Prozesu esperimentalean, tratamenduaren eraginkortasuna eta ondorioak ebaluatuko dira etengabe, tratamenduaren gainean gehiago jakiteko, 2020tik aurrera modu zabalagoan aplikatu daiteke eta».

Neurriok ez dira denen gustukoak. Esaterako, Naturkon elkarteak esan du administrazioek pinudiak berreskuratzeke erabiltzen duten estrategiak ez daukala inolako oinarri zientifikorik. «Lehendik ere Gipuzkoan eginak dituzte esperimentuak, eta bistakoa da ez dutela emaitza onik eman», dio aipatutako elkarteak. Pinudien krisiak «basogintza-politika aldatzeko aukera paregabea» eskaintzen duela uste du Naturkonek: «Sektore hau modernizatu behar da, eta ingurumen kalteak kontuan hartzea behartu. Naturaren ustiapena eta kontserbazioa uztartu behar dira, eta horretarako badago jakintza eta modua Gipuzkoan. Basogintzak ez luke egurgintza bakarrik izan behar, eta, horretarako, ezinbestekoa da baso-politika egurraren *lobby*tik askatzea».

BASKEGUR, IRTENBIDE ESKE

Egoera kezkarria dela jakin arren, pinuen gaitza kontrola daitekeela uste du Baskegur Euskadiko Egurraren Elkar-teak, eta erakundeen konpromisoa eskatu du horretarako. Izan ere, dioenez, Txilen eta Zeelanda Berrian gaixotasun horiek kontrolatzen ari dira, aldizkako tratamendu fitosanitarioen bidez. Elkarte horren arabera, Euskadin zuhaitzek hartzen duten azalera lurralde osoaren % 54 inguru da, 396.962 hektarea, EBko ratorik altuenetakoa. Hain zuzen, koniferoak –eta bereziki intsinis pinuak– EAEn merkataritzarako gehien botatzen diren zuhaitzak. Errentagarritasunari dagokionez, baso eta egurraren

sektoreak euskal barne produktu gordinari egiten dion ekarpena % 1,2 - % 1,5 ingurukoa da; 3.300 milioi euro, urtean. «Enpleguan duen eragina ere garrantzitsua» da, «zuzeneko 13.000 lanpostu eta zeharkako beste 7.000» sortzen baititu; «eta hori EAEko enpleguaren % 2 baino zertxobait gehiago da». Hori dela eta, «Euskadiko egurraren alde egitea aberastanaren eta enpleguaren alde egitea» dela dio Baskegurrek.

Edonola ere, pinuen gaitza hedatzen ari den heinean, basogintza politikari buruzko kezka ere areagotzen ari da. Hala, norabide aldaketa bat beharrezkoa dela deritzote zenbait eragilek. EH Bilduren ustez, «monolaborantzen bitartez ez da kalitatezko egurra ekoizten, ekoizpen gehiena paper pasta eta oholzetara bideratuta baitago». Hori horrela, Naturkon elkartearen hari beretik, basogintza politika aldatzearen beharrez mintzo da koalizioa. Bide horretan, zenbait udal lur erosteko pausoak ematen hasi dira. Berriatuak, esaterako, aurrekontuko 20.000 euro bideratuko ditu aurten mendi lurak erostera.

Izan ere, Jon Arriola Berriatuko alkatearen esanetan, basogintza eredia da benetako arazoa. «Arazoa ez da pinua, ezta eukaliptoia ere. Arazoa gure mendiak pinudiz zein eukaliptoz betetzea da; hitz batean, monolaborantza da arazoa». Aniztasuna bultzatu behar da, Berriatuko alkatearen ustez. Hori dela eta, egungo eredia iraultzea «ezinbestekoa» dela dio Arriolak, eta aldundiek etsenplu eman beharko luketela uste du, diputazioen ja-

begoko mendietan ere monolaborantza ematen baita: «Lur publikoarekin ezin da pribatuarekin bezala jokatu». Haren ustez, mendi publiko guztiak kudeaketa planak egin beharko lituzkete. «Horrek erraztuko luke mendi publikoetan zer eta nola erabakitzea, eta egurraren ekoizpenak nolakoa izan behar duen eta zer erabilera izango duen antolatzea».

Dirulaguntzak emateko modua ere aldatu beharra dagoela deritzo Arriolak, egungoak basogintza eredu bakarra bultzatzen duela iritzita. Hala, aukera guztiak «berdin bultzatuta eta diruz lagunduta» egongo balira, ziurrenik basogintzaren egoera «oso bestelakoa» izango litzatekeela dio. Berriatuko alkatearen arabera, «mendi publiko nahiz pribatuetan pinuen zein eukaliptoen monolaborantza nagusitu bada, erakunde publikoek bultzatu dutelako» izan da. Ondorioz, «bai aldundiak bai udalak eredugarriak izan beharko lirarteke haien lurak kudeatzerakoan, ezin baitute jabe pribatuek bezala jokatu; beste irizpide batzuk kontuan izan beharko lituzkete erakunde publikoek».

BERTOKO BASOEN ALDE

Bizkaiko norbanako, enpresa, entitate eta elkarte batzuek sortutako Kolore Guztietako Basoak plataformak bertoko basoak berreskuratzea dauka helburu. Adierazgarriak dira ematen dituen datuak: Kalifornian jatorria duen Radiata pinuaren landaketek 70.000 hektarea hartzen dituzte Bizkaian, baso eremuaren % 53; eta Kalifornian, aldiz, 4.000

hektarea. Plataformaren arabera, landaketa horiek ingurumenean eragiten dituzten «ondorio larrienak animalia eta landareen bioaniztasuna eta baso lurren emankortasuna gutxitzea dira». Gaineratzen duenez, «frogatuta dago baso lurretako bioaniztasunaren gutxitzeak atmosferako karbono dioxidoaren xurgatze gaitasuna eta zuraren produkzioa txikitzen dituela».

Bestetik, gaixotasunaren eta prezioen merkatzearen ondorioz, pinuarekiko dependentziak basogintza sektorearen «dekadentzia» eragin dezakeela uste du Kolore Guztietako Basoak plataformak. Hori horrela, «produkzio aniztasuna» sustatu beharra dagoela dio, «produkzio intentsiboak ingurumenean eta ekonomian eragindako ondorioak zuzentze aldera». Hala, Bizkaiko Foru Aldundiari baso lur publikoen «kudeaketa ekologikoa» egin dezan eskatu dio; batetik, «bertoko baso eremuak birstortu eta handituko dituen, basoen arteko zuloak beteko dituen eta baso osasuntsu eta handiagoak sortuko dituen»; eta, bestetik, «produkzio aniztasuna bultzatuko duen naturatik gertuko basogintza». Horrez gain, ezinbestekotzat jotzen du basogintzarako laguntzak moldatzea. «Gure ustez, administrazioek zorrotzasunez jokatu eta herritarrentzat eredu izan behar dute, kontserbazioa sustatu eta naturatik hurbileko basogintzan oinarritutako baso-kudeaketa sustatu bere eskumeneko mendi publiko eta ondarezkoetan..»

URTZI GOITI,

UPV-EHUko zoologia irakaslea eta Kolore Guztietako Basoak ekimeneko kidea



«*Denbora kontua baino ez zen pinuaren banda marroia bezalako gaitz baten agerpen bortitza*»

Zein da Euskal Herriko basoen egungo egoera?

Lehenik eta behin, terminologia aldetik bereizpen bat egin beharra dago. Zuhaitzez estaliriko eremu guztiak ez dira baso; alegia, basoa eta zuhaitz landaketa gauza ezberdinak dira. Gari soro bati edo ekilore sail bati *belardi* deitu ezin diogun moduan, pinu edo eukalipto landaketa bati ezin diogu *baso* esan. Basoak konplexuak dira, espezie ezberdinez osatuak daude orohar, lurzoru sakon eta aberatsa dute, eta hildako enbor eta egur ugari izan beharko lukete. Eta baso izaerak denboran iraun beharko luke, hau da, beti zuhaitzak egon beharko lirateke bertan. Gauzak horrela, argi dago gure inguruan «benetako» baso gutxi dugula. Ditugun basoak gazteegiak dira edo azalera txiki-egia dute, sakabanatuegi daude eta ez dituzte aipaturiko baldintzak betetzen. Gainera, baso mota batzuk ugariago diren bitartean, pagadiak kasu, beste espezie batzuek osaturiko tajuzko basoak aurkitzea zaila da; hariztiak, esaterako. Bestalde, zuhaitz landaketen osasuna oso ona da, pinudiak eta eukaliptadiak asko ugaritu dira azken hamarkadetan; belardi, larre, sastrakadien galera hauek ordezkatu dituzte, eta, aurreikuspenen arabera, horien azalera gora egingo du, eta gure paisaian nagusituko da; baina ez dezagun ahaztu, ez dira basoak.

Pinuen gaixotasuna, biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak... Zeintzuk dira gaur egun arazo larrienak?

Egungo basoen egoera ulertzeko atzera begiratu beharko genuke eta azken mendeetako gertakariak aztertu. Bertako basoen beherakada aspaldikoa da, eta esan dezakegu XX. mende erdi aldean izan zela seguraski horien azalerarik txikiena. Egurra eta zura oso preziatuak izan dira su-egurretarako eta etxegintzan, baina, ziur asko, inpaktu handiena industriak sortuko zuen; haizeolek, burdinolek, untzigintzak eta ikazkintzak, besteak beste, baso gehienek mozketa ekarri zuten. Horrek guztiak gaur egungo basoen ugartasunari eta egiturari eragin die. Pinu eta eukalipto landaketek, gainera, ez diote lekurik uzten basoari, Bizkaiko eta Gipuzkoako eremu zabaletan, behintzat. Hala ere, azken hamarkadetan bertako basoa birsortzen dabil indar handiz, eta berau berreskuratzeko aukera ezin hobea dugu; ez dezagun galdu.

Eta landaketen kasuan?

Landaketen kasua arras desberdina da. Gure ustez, landaketen mehatxurik larrienak basogintzan erabiltzen diren kudeaketa neurri eta metodoak dira. Hasteko, ia bi espezie soilik landatzen dira: *Pinus radiata* pinuak eta *Eucalyptus globulus* eukaliptoak. Hori akats nabar-

mena da, jakin badakigulako izurri batek zabaldu nahi badu, hori baino ez baitu behar: espezie bakarraz estaliriko azalera handi bat. Denbora kontua baino ez zen pinuaren banda marroia bezalako gaitz baten agerpen bortitza. Arazo gehigarria da, gainera, egurra ustiatzeko erabiltzen den metodoa, landaketa sailen bat-bateko mozketa edo *matarrasa* hitzez ezaguna dena. Matarrasak «baso izaeraren» galera dakarkio eremu bati; hots, lurzoru babesten duen zuhaitz estaldura desagertzen denean, euriak eta eguzkiak eragindako kalteak sufritzen ditu lurzoru horrek. Gainera, makineria astuna erabiltzen denez, lurra irauli, mugitu, eta dauden sastrakadi edo belarkarak ateratzen ditu. Kontuan izan behar dugu gure mendiak malkartsuak direla eta euriztapen tasa handiak ditugula. Ondorioz, horrek moztutako sailetan ikaragarritzko higadura eragiten du, lurzoruaren galera itzela izan ohi da, eta erreka eta ibaietan ikus dezakegu kaltea.

Gogoratu beharko genuke lurzoruak –lurreko lehen geruza ilun horrek– ematen diola basoari aberastasuna eta hazteko ahalmena, bertan bizi baitira deskonposatze lana egiten duten mikroorganismoak; zuhaitzekin mikorrizak eratzen dituzte onddoek, eta bertan gordetzen da aldi euri ura. Lurzorua galduz gero,

basoen erresilientzia ahalmena murriztu egiten da, are garrantzitsuagoa dena klima aldaketaren mehatxua aurrean dugunean. Egungo basogintza ereduaren errealitatea da hori. Pinudiak 30 edo 40 urterik behin mozten dira, baina eukaliptoak 12-15 urterik behin, papeira egiteko erabiltzen baita egurra eta ez zuretarako; eta hori ikaragarria da. Horrek eragindako kalteak jadanik ikusten ari gara; izan ere, orain 100 urte inguru landatu ziren landaketetan (hirugarren belaunaldia), dagoeneko egur ekoizpena murriztu egin da, kasu batzuetan %30eko beherakadarekin.

Zer proposatzen du Kolore Guztietako Basoak ekimenak?

Bizkaian sortu den ekimena da Kolore Guztietako Basoak plataforma, lurralde historiko honetan basoen egoera kaskarrari erantzuteko eta basogintza politika aldatzeko. Oro har, gure lehen helburua administrazioak kudeatzen dituen eta bizkaitar guztionak diren lurretan eragitea da. Laburbilduz, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dioguna zera da, bai ondarezko zein onurazko mendi publikoetan kontserbazio basoak eratzea; inolako ustiaketa ez ekoizpen asmorik gabeko basoak sortzea lur publikoetan, alegia. Biodibertsitatea kontserbatzeko eremu basotarrak izango lirakeke, eta aldi berean gizartearen aisialdirako baliagarriak. Bestetik, eta kontuan izanda egurraren sektoreak gure ekonomia eta gizartearen zeresana baduela, baso ekoizleak sortu beharko lirakeke; baina ez edonolakoak, zehazki naturatik hurbileko baso ekoizleak. Zer dira baso hauek? Bertako espeziez osaturiko basoak, beti baso izaera izango dutenak, lurzorua eta biodibertsitatea gordetzen lagunduko dutenak, eta, aldi berean, kalitate handiko egurra eta zura emanango dutenak. Esan bezala, baso horiek lur publikoetan sortu beharko lirakeke. Administrazioa izan beharko litzateke sortzaile eta eredu, egurra ekoizteko eredu

berri bati loturiko sare ekonomikoaren eragile, gerora sektore pribatua elkartu dakion. Horrelako basogintza politikak ez dira ezer berririk, Europako hainbat herrialdek darabilten basogintza eredu baita; Esloveniak eta Suitzak, esaterako. Beraiei begiratu eta kopiatu baino ez dugu egin behar.

Basoen kudeaketa ekonomikoa eta iraunkortasuna bateragarriak al dira?

Bateragarri izan beharko lukete, zalantzarik gabe. Ez dezagun ahaztu egun hemen dugun basogintza hein handi batean dirulaguntzetan oinarrituta dagoela; hau da, diru publikoa ematen zaiola sektore pribatuari kalitate gutxiko egurra ekoizteko, baina, aldi berean, gure ingurunean eragin ikaragarria duela. Bestalde, esan beharra dago gure lurraldeko baso jabe gehienak, oraingoz, lurjabe txikiak direla eta ez direla basotik bizi, gehienek diru sarrera gehigarri gisa baitute landaketa. Beraz, sozioekonomikoki landaketen garrantzia sakon aztertu beharko litzateke, eta inbertitzen den dirua publikoa dela gogoratu. Orain ere, banda marroien gaitzari aurre egiteko denon dirua erabili nahi dute sektore pribatua salbatzeko.

Kudeaketa eredu berria zertan oinarritu beharko litzateke? Zein neurri hartu beharko litzukete udalek, aldundiek eta Jaurlaritzak?

Guztiz beharrezkoa da basogintza eredu berria, egun dugun baso politikaren iraunkortasuna ez baitago bermatua, ez epe ertainean, ezta epe laburrean ere. Eskudun diren heinean, aldundiek bultzatu beharko lukete aldaketa, baina bereizpen bat ere egiten dugu. Udalerri txiki askoren diru sarrerak basotik etorri ohi dira, eta horien kasuan aldaketa atzeratu edo modu arinagoan inplementatu beharko litzateke. Ordea, lur publikoak dituzten udalerri handietan, Durango edo Barakaldo, esaterako, lur horiek kontserbaziora bideratu beharko lirakeke, inolako ekoizpen asmorik gabe.

Beharrezkoa al da dirulaguntza gehiago ematea?

Dirulaguntza gehiago ematea baino, emandakoa ondo banatzean dago gakoa. Orain arte ez zegoen laguntzarik berezko birsorkuntzaz sorturiko basoa sortzeko. Hau da, dirulaguntzarik ez da egon pinudi zahar askotan edo utzitako saskiak eta larreetan berez hazten diren haritz, lizar, gaztainondoetatik basoa sortzeko, eta, kontrara, dirua egon da lursaila garbitu, goldatu eta mintegiko landareak sartzeko. Ez dirudi logikoa, ezta? Horretatik, bada, dirulaguntzak bideratu beharko lirakeke bertako basoa ustiatu nahi duten lurjabeentzako, betiere naturatik hurbileko basogintza sustatuz. Pinu landaketek dituzten laguntzak, behintzat, berdindu beharko lirakeke.

Baso publiko eta pribatuak. Berdin jokatu behar al da kasu bietan?

Galdera konplexua da, eta gure etorkizunerako nahiko genukeen mendi eta paisaia motaren arabera ezberdina da erantzuna. Hala ere, lehen esan bezala, aldaketaren lehen urratsa baso publikoan eman beharko litzateke, hori horrela egin ezean, zaila izango baita sektore pribatuak halakorik egitea. Baina azken helburua hori izan beharko litzateke, lurjabe pribatua ere bertako basoa landatzera bultzatzea, edo, zergatik ez, ekoizpen asmorik gabeko kontserbazio basoak berreskuratzea. Pentsamendu produktibista alde batera uzteko garaia ere baita.

Zenbait udalek basoak erosteko asmoa agertu dute, kudeaketa eredu berria ezarri eta lurak lehengoratzeko. Zer deritzozu neurri horri?

Txalotzeko moduko erabakia da, udalerri askok ulertu baitute egungo politikak ez duela etorkizunik eta gizarteak bestelako mendiak eta inguruneak nahi dituela. Oraingoz, ekimen hauek puntualak eta maila txikikoak dira, baina lur publikoak eta bertako basoak berreskuratze bidean, pauso sendoak dira. ■

Ariketak 104

I. Osa itzazu esaldiak honako hitz hauek erabilita:

aniztasun aitortza mentorea doitasun
indarge zilegitasuna atalasea ahaldundu
burujabetza zioa eraldaketa aldarte

1. Arreta Integralaren Sarea osatzen duten zentroyen eta zerbitzuen xede nagusia emakumeei laguntza ematea da, oneratu, _____ eta autonomia osoa eskuratzeko prozesuan.
2. Alkoholaren ondorioak ez dira beti berdinak. Hainbat alderdik du eragina: zenbat edaten dugun, non-nola hartzen dugun, _____ onean ala txarrean gauden, zer espero dugun, eta gu geu nolakoak garen.
3. Dekretu honek Indargabetzeko Xedapen baten bitartez _____ utzi du 2008ko martxoaren 5eko Agindua, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortu zuena.
4. Garapen-bidean dauden herriek garapena eta _____ osoa lor dezaten, oztopo izaten jarraitzen dute goseak eta malnutrizioak, kolonialismoak, atzerritarren okupazioak, arraza-bereizkeriak, eta abar.
5. Proposatutako _____ bultzatzeko, sare sektorial guztietako partaideak izango dituen IKTen arloko batzorde estrategiko bat sortuko dugu.
6. Indarkeriaren biktimei eragindako kaltea erreparatzea sustatu nahi da, batez ere _____ soziala eta egiaren zabalpena eginez.
7. Erregistro-ziurtagiri horien bitartez, sozietate-organoen eta borondatezko ordezkarien merkataritza- _____ ziurtatzen da, foru-ogasunarekin era telematikoan jarduteko sinadura digitalaren bidez.
8. Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, eta irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxieneko _____ ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko.
9. Baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharko da laguntza eman duen entitatearen aurrean, eta, halaber, laguntza eman eta jasotzeko _____ izan den jarduera.
10. Alor batean ezagutza eta esperientzia eduki, eta gai horretan laguntza behar duen beste batekin partekatzen duena da _____.
11. Proiektuaren helburu nagusia da hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzea eta _____ linguistiko zabala eta kulturarteko kontzientzia sustatzea.
12. Emari, _____ eta eraginkortasunez mintzatu da askotariko gai orokorre, akademiko, eta profesionalei buruz, eta argi lotu ditu ideiak.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



2. Antzekoak baina ez berdinak

Euskaraz badira hainbat hitz antzera idazten baina hizki bakar batek ezberdin egiten dituenak. Jakingo zenuke hauetako zeini dagokion eman dugun hitz edo definizioa?

Eskua bukatzen den bost zatietako bakoitza	hats	hatz
Isurkari koloregabe, usaingabe eta zaporegabea	hur	ur
Soinu, zarata	hots	hotz
Lepo	sama	zama
Itxaropena galdu	etsi	etzi
Erraza ez dena, eragozpen handiak dituen, nekeza, gaitza	saila	zaila
Jardun	hari	ari
Zerbaiten lehen zatia egin	hasi	hazi
Zerbaitez edo norbaitez pentsatzen dena	iritsi	iritzi
Urez edo beste isurkariren batez garbitu	ikusi	ikuzi

3. Hobetu testua, koadroan aipatutako irizpideak aintzat hartuta:

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren proiektu berri bat: Legegunea. Erabili ezazu, denon onerako baita.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren aldetik, Legegunea proiektua sortu zen Euskadi.eus atariaren edukien kalitatea hobetzeko.

Berari esker, web-orri bakar batean biltzen dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioan sortzen edo garatzen diren informazio juridiko garrantzitsuenak. Era berean, herritarren proiektuak gauzatu ahal izateko, jakinarazten da beraren bitartez zein eskubide dituen proiektuaren baldintza juridiko eta teknikoei buruzko orientazioa eta informazioa jasotzeko.

1. Irizpidea: Titulu egokia jarri testuari.

- Titulua egokia izango da, baldin eta argi adierazten badu testuaren mezu nagusia hitz gutxitan.
- Erabili ahalik eta hitz gutxien horretarako (10-12 inguru, gehienez).

2. Irizpidea: Esaldiak aktibatatu / Egilea agerian utzi

- Esaldi aktiboak *nor* eta *zer* argi uzten dituztenak dira.

Soluzioak104

I. Osa itzazu esaldiak honako hitz hauek erabiltuta:

1. Arreta Integralaren Sarea osatzen duten zentroen eta zerbitzuen xede nagusia emakumeei laguntza ematea da, oneratu, **ahaldundu** eta autonomia osoa eskuratzeko prozesuan.
2. Alkoholaren ondorioak ez dira beti berdinak. Hainbat alderdik du eragina: zenbat edaten dugun, non-nola hartzen dugun, **aldarte** onean ala txarrean gauden, zer espero dugun, eta gu geu nolakoak garen.
3. Dekretu honek Indargabetzeko Xedapen baten bitartez **indarge** utzi du 2008ko martxoaren 5eko Agindua, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortu zuena.
4. Garapen-bidean dauden herriek garapena eta **burujabetza** osoa lor dezaten, oztopo izaten jarraitzen dute goseak eta malnutrizioak, kolonialismoak, atzerritarren okupazioak, arraza-bereizkeriak, eta abar.
5. Proposatutako **eraldaketa** bultzatzeko, sare sektorial guztietako partaideak izango dituen IKTen arloko batzorde estrategiko bat sortuko dugu.
6. Indarkeriaren biktimei eragindako kaltea erreparatzea sustatu nahi da, batez ere **aitortza** soziala eta egiaren zabalpena eginez.
7. Erregistro-ziurtagiri horien bitartez, sozietate-organoen eta borondatezko ordezkarien merkataritza-**zilegitasuna** ziurtatzen da, foru-ogasunarekin era telematikoa jarduteko sinadura digitalaren bidez.
8. Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, eta irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxieneko **atalasea** ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko.
9. Baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharko da laguntza eman duen entitatearen aurrean, eta, halaber, laguntza eman eta jasotzeko **zioa** izan den jarduera.
10. Alor batean ezagutza eta esperientzia eduki, eta gai horretan laguntza behar duen beste batekin partekatzen duena da **mentorea**.
11. Proiektuaren helburu nagusia da hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzea eta **aniztasun** linguistiko zabala eta kulturarteko kontzientzia sustatzea.
12. Emari, **doitasun** eta eraginkortasunez mintzatu da askotariko gai orokorre, akademiko eta profesionaleri buruz, eta argi lotu ditu ideiak.

2. Antzekoak baina ez berdinak

Eskua bukatzen den bost zatietako bakoitza	hatz
Isurkari koloregabe, usaingabe eta zaporegabea	ur
Soinu, zarata	hots
Lepo	sama
Itxaropena galdu	etsi
Erraza ez dena, eragozpen handiak dituen, nekeza, gaitza	zaila
Jardun	ari
Zerbaiten lehen zatia egin	hasi
Zerbaitez edo norbaitez pentsatzen dena	iritzi
Urez edo beste isurkariren batez garbitu	ikuzi

3. Hobetu testua, koadroan aipatutako irizpideak aintzat hartuta:

Soluzioa (1)

Zertarako balio du Legegune proiektuak?

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Legegunea proiektua sortu zuen Euskadi.eus atariaren edukien kalitatea hobetzeko. Legeguneak web-orri bakar batean biltzen ditu Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak sortzen edo garatzen dituen informazio juridiko garrantzitsuenak. Era berean, herritarrak proiektu bat abian jarri nahi badu, Legeguneak jakinarazten dio zein eskubide dituen proiektuaren baldintza juridiko eta teknikoak buruzko orientazioa eta informazioa jasotzeko.

Soluzioa (2)

Zertarako balio du Legegune proiektuak?

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Legegunea proiektua sortu zuen Euskadi.eus atariaren edukien kalitatea hobetzeko.

- Legeguneak web-orri bakar batean biltzen ditu Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak sortzen edo garatzen dituen informazio juridiko garrantzitsuenak.
- Herritarrak proiektu bat abian jarri nahi badu, Legeguneak jakinarazten dio zein eskubide dituen proiektuaren baldintza juridiko eta teknikoak buruzko orientazioa eta informazioa jasotzeko.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



BOOKTEGI:

guztion liburuak, guztiontzat

ARITZ BRANTON

BOOKTEGI ATARIAREN EDITOREA ETA KOORDINATZAILEA

Booktegi.eus-en euskarazko liburu elektronikoak dohainik deskarga daitezke gehien erabiltzen diren formatu elektronikoetan, webgunearen helburua irakurtzeko aukera elektronikoa euskaldun guztiei eskaintzea baita. Bertan, fikzioa, saiakera, poesia, kirola, klasikoak eta gazte-literatura sailak ditugu, besteak beste. Liburu gehienekin batera, bideoak eta audioak daude, eta teleaio bat ere ekoiztu dugu, *ElkarrizKatea* izenekoa. Egitasmoaren helburu nagusia euskaraz gehiago irakur dadila da.

Booktegiren sortzaileok argi ikusi genuen euskarazko testu eta liburu askori ez zitzaizela etekinik ateratzen –ahaztuta zeuden, apaletan gordeta– eta,aldi berrean, liburu elektroniko formatua oso gutxi erabiltzen zela euskal munduan. Beraz, ahulezia horiek batzea erabaki genuen, eta, horrela –bi gabezia horiek uztartuz, alegia–, abagune bat sortuko genuen.

Liburuak bilatzen hasi ginen. Uste genuen idazleek haien lanak dohainik ematea zaila izango zela, baina, inguruan genitueni proiektua azaldu genienean, egile guztiek harrera ona eman zioten egitasmoari, eta Booktegi liburuak eman ere egin zizkioten. Beraz, Booktegi eduki ona hasieratik izan du; besteak beste, Ane Labaka, Asier Altuna, Mursego eta Koldo Almandozen lanak hasiera horretan zeuden.

Hasierako liburu horiek idazleen eskuabaltasunari esker partekatu ahal izan genituen gure erabiltzaileekin. Irakurleen erantzuna ere ona izan zen lenenengo egunetik eta egitasmoari harrera beroa

eman zioten: booktegi.eus 2017ko martxoan ireki genuen, eta 1.500 bisita baino gehiago jasotzen ditugu hilero, baita 2.100 deskarga ere.

Lau motako liburuak eskaintzen ditugula esan daiteke: berreskuratzen diren liburu zaharrak (Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean* ipuin-liburua, adibidez), liburu berriak (Patxo Telleriaren *Tabernaria* antzezlan), idazleei proposatu dizkiegun bildumak (Jose Mari Pastorreren *Minareteak Urdaibain* artikulu-bilduma), eta itzulpenak (Jack Londonen *Adan baino lehen* eleberria, Josu Zabaleta handiak itzulia).

Webgunea ireki bezain azkar, lagun batek beste ideia bat proposatu zigun: bideo-elkarrizketak idazleekin grabatzea eta irakurleei eskaintzea. Booktegi oso baliabide gutxiko proiektua da, baina konurtatu ginen telefono mugikorrekin graba genitzakeela bideoak, eta ordenagailu batekin editatu. Gaur egun, idazle gehien elkarrizketak haien liburuekin batera plazaratzen ditugu eta bideo guztiak gure telefonoekin grabatzen ditugu.

Batzuetan ideia batek beste bat dakar, eta, horrela, bideoak grabatzearenak audioak eskaintzeko ideia eman zigun. Euskal munduan audio-liburuak ia ezezagunak dira, *Xerezaderen artxiboa* (<http://xerezade.org>) salbuespen zoragarriarekin. Liburuak entzuteak literaturaz gozatzeko aparteko aukera eskaintzen duenez, proposamen berriari gogoz ekin genion. Mundu ingelesean urtero milaka liburu grabatzen dira, eta ingeles askok astero liburu bat entzuten dute. Ingelesdunek aukera hori badute, euskaldunok zergatik ez? Gaur egun 50 inguru audio ditugu Booktegin.

Ekitaldi batzuk ere antolatuko genituela erabaki genuen. Booktegiren asmoa euskarazko irakurketa bultzatzea denez, idazle batzuek jendaurrean irakurtzea proposamen interesgarria iruditzen zaigu, bai entzuleengan sortuko litzatekeen plazeragatik, bai gure proiektuaren berri ahalik eta lagun gehienei helarazteko aukerarengatik. Geroztik, hainbat sortzailek parte hartu dute gure solasaldi-emanaldietan; hori dela eta, euskal idazleen eskuabaltasuna berriaz gorai patu nahi nuke.

Lapurtzea gaizki dago, plagiatzea ere bai; baina ideiak hartzea libre dago, eta gure *ElkarrizKatea* teleaioak BBCko irratsaio batean dauka iturria. Atal bakoitzean, bi pertsonen arteko elkarrizketak entzuten dira, eta, hurrengo saioan, solaskide horietako batek beste lagun batekin hitz egiten du. Gure saioan, partehartzaile guztiak idazleak dira, eta haien artean kate bat osatzen da, azken atalean ixten dena. Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Arantxa Iturbe, Harkaitz Cano, Katixa Agirre, Beñat Sarasola eta Peru Iparragirre izan ziren lehenengo denboraldiaren solaskideak; bigarrenean, beste zortzi idazle ekarriko ditugu.

Booktegiren hasieran ez genuen espero hainbeste gauza egitea, ezta hain harrera ona izatea ere idazleen eta irakurleen partetik. Liburuak, bideoak, audioak, teleaioak eta ekitaldiak ekoizteaz gain, momentuz bururatu ez zaizkigun beste material batzuk ere eskaintzen jarraitu nahi dugu; babesleak eta donazioak bilatu beharko ditugu, ezin dugu hain baliabide gutxirekin aritu betiko. Dena euskararen alde, eta euskarazko irakurketaren alde. ■

M-8ak markatu ditu atzetik datozenak

OIHANA CABELLO

Kalean, erdigunean. Bizitzak, eskubideak eta aldarrikapenak kalera ateratu dituzte emakumeek martxoaren 8an. Beste behin. 2018an lau orduz lana utzi, eta mundu zabalean hainbat irudi laga zituen emakumeen borroka egunak. Aurten, berriro, kalera, erdigunera ateratu dira. Bost ardatz eta hainbat aldarrikapen. Pentsioak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa ardatz hartuta, Euskal Herriko Mugimendu Feministak «kapitalismoari, patriarkatuari, heteroaruari, kolonialismoari eta kapazitismoari plando» egitera dei egin zituen heteropatriarkatuak zapalduko gizarako subjektu denak.



Eta kaleak bete egin dira, berriro, 2019ko martxoaren 8an. Greba Feministak eragina izan nahi duelako bizitzako hainbat esparrutan, borrokarako gune bezala identifikatu izan dituztenetan: soldatapeko zein doako lanetan, sexualitatean, kontsumo eremuan, familia eraikitzeko moduan, jakintzak *ekoizteko* eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun eremuan eta zapalkuntza guztien aurrean. Bizitzak sostengatzeko ardura kolektiboa da Mugimendu Feministak eskatzen duena; martxoaren 8an kalean egindako aldarrikapenak ez dezala indarririk galdu. Horretarako, aurrera begira, zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatu du; hau da, pertsonen zaintza ez dadila heteropatriarkatuak zapaltzen dituen horien bizkarrean geratu. Mugimendu Femi-

nistak uste du egoera iraultzeko modua paktu sozial berria zehaztea litzatekeela. Iaz antolatu zuten lehenengoz greba feminista Euskal Herri mailan, eta Euskal Herriko Bilgune Feministaren iritziz, ez da ariketa erraza. «Feminismoa ez da eroso, praktika politiko erradikala da, eta, beraz, iraultza feministak bizitza politizatzea exijitzen du. Aurreko urtean, lantokian, ikastetxean, familian, kuadrillan edota gure bizitzako bestelako espazio anitzetan, lehenengoz emakumeok subjektu izango ginen greba feminista planteatzeak deserosotasuna sentitzea ekarri zuen». Iazkoa antolatzeko inurri lana egin behar izan zutela aitortu dute, eta aurten jaso dutela uzta. Oinarria izanda, emakumeek antolatzen jarraitzeko indarra eta gogoia izan dutela dio mugimendu feministak, aurreko urtekoa

errepikatzeko, eta arrazoi ezberdinetatik aurrekoan iritsi ez ziren emakume horiengana heltzeko. Hala ere, 2019an greba feministaren aldarri politikoetan sakontzera ausartu dira: «egun osoko greba deitu dute, greba feminista edukiz bete, eta mezuan gehiago sakondu dute». Azken batean, gehiago politizatu dute, eta posizionamendu bat hartu «ezinbestean emakume, trans eta bollerok kalean gaudela munduari ikusarazi eta erakusteko».

Aurtengo greba deialdiari euskal gizarteak eman dion erantzuna «kolosala izan dela» esan du mugimendu feministak. Euskal Herrian, 200 herri baino gehiagotan jendea kalera atera zen egun honean, gaueko hamabietan hasita, emakume langileon bizitzak erdigunean jarritz. 12:00etan zein 19:00etan, Euskal Herri osoan ekintza bateratuak egin zituzten, eta esan dute egun osoan zehar heteropatriarkatu kapitalistari hamaika modutara planto egin ziotela. «Hasieratik greba honen antolaketa eta gauzatzea deszentralizatu izan da, eta horrek ahalbidetu du auzo, herri eta talde bakoitzak bere errealitatek greba feminista lantzea eta kale zein txoko guztiak hankaz gora jarri ahal izatea. Gainera, eraldaketarako eragile nahiz subjektu anitzak batzea lortu dugu, eta, hortaz, lanketa nahiz politizazio hori garaipen bat izan da guretzat».

Mugimendu feminista kontziente da bere ardura dela diskurtso zein praktikean aurrerapausoak ematea eta, horrenbestez, hizkuntza aldatzen eta eraldatzen joatea. Aurten, greba feministaren hausnarketarako, antolakuntzarako eta komunikaziorako txostena sortu dute; bertan, oinarri ideologikoa azaldu dute, egoeraren azterketa egin eta aldarrikapen bateratu batzuk eskaini. Horren bidez, emakume orok oinarri beraren baitan grebarekin bat egin, eta kalera norabide berean ateratzea ahalbidetu nahi izan dute. «Jakitun gara kontzientzia eta oinarri ideologiko politiko bat ez dela soilik euskarri batekin lantzen; alegia, egune-



roko lana behar-beharrezkoa dela; baina batasuna eta norabide jakin bat markatzea ahalbidetzen duen tresna da, aipatu bezala, oinarri greba bat izan dadin, eta, horrenbestez, kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboki ere anitza izateko». Eta aurrelanketa horrek emaitza ona eman duela diote. «Aurten gure aldarrikapenak zehaztu, eta oinarri politiko komun batzuk ipini ditugu, eta, hortaz, kolektiboan eraikitako diskurtsoak kontzientzia bat eta errotiko proposamen berria eskaini digu». Bestalde, Sare feministaren iritziz, aurrerapauso handiak eman dira aliantza eta saretzean errealitate ezberdinak bizi dituzten emakume zein subjektu anitzekin: gazte, ikasle, pentsionista, emakume arrazializatu, migrante, preso politikoaren senide, aniztasun funtzionala duten emakume, etxeko langile, eta abarrekin. Gauzak horrela, greba feminista sektore eta borroka eremu anitzetan landu eta antolatu da, eta elkarrekin politizatu dute bazterketaren ezinegona.

Aldaketa kualitatiboa behar da egunerokotasuna iraultzeko. Egoeraren irakurketa partzialei aurre egin, eta gaur egungo egoera ez-legezkoak elkarri lotuta daudela azpimarratu du Mugimendu Feministak: «Soldatepeko lan feminizatu prekarario, ordaindu gabeko etxeko lanetan ematen ditugun jardunaldi amaigabeak, paperik gabe dauden etxeko langileak, botere guznetan dauden gizon burgesek bankuaren interesak lehenestea, naturaren desjabetzea, emakumeon, bolleron eta transon aurkako biolentziak, epaitegietan erasotzaileak babestea, eta abar. Horrek guztiak erakusten digu bizitza batzuek beste batzuek baino balio handiagoa daukatela. Hierarkia horiek jo-puntuari jarri ditugu martxoaren 8an».

ARAZO INDIBIDUALAK KOLEKTIBO EGINEZ

Kalera atera dira, eta erdigunean kokatu. Diotenez, elkarretaratzeak, kaleko protestak edota manifestazioak, komu-

nikabideetako minutu batzuk betetzeaz gain, eragingorak ere badirelako. Indibidualismoarekin bukatzea ahalbidetzen dutela dio Mugimendu Feministak. Borroka, kezka, aldarri zein salaketa konpartitua erakutsi dute kalean, eta arazo indibidual bat arazo kolektibo bihurtu. Era berean, ezkutuan dauden gatazkak azaleratu, eta problematika sozialen inguruko hausnarketa bultzatu dute. Gizarteak borroka feminista egun bakarreko edota instituzionalizatuta dauden egunetan ematen diren indar erakustaldiez harago doala ulertzen duelako, hurrengo 365 egunetan konpromiso politikoan sakontzen eta urratsak ematen jarraitu beharra azpimarratu dute. «Konpromiso politikoaz dihardugunean, bizitzaren eremu guztiak politizatzen eta egunerokoa borroka eremu gisa aitortzeaz ari gara, eta, beraz, bizitzaz birjabetzeko nahia dugun unetik, gure konpromisoak sakoneko eraldaketa prozesuak ahalbidetu behar ditu zenbait dimentsiotan». Oro har, martxoaren 8ak berriro argi utzi du aldaketa beharrezkoa dela, bai kalean eta bai instituzioetan.

Hezkuntza arloa ere ez da salbuespena. Steilas sindikatuko Ana Perezek ere garrantzia eman dio Mugimendu Feministak egin duen lanari. Haren esanetan, lan horren ondorioz, gizarteak egoera osotasunean irakurtzeko gero eta kontzientzia handiagoa du. Greba bera prestatzeko feminista guztiak deitu zituen Mugimendu Feministak, antolatuta daudenak edota maila pertsonalean, eta greba egunaren aurretik ere parte hartzea izugarria izan zela gogoratu du Perezek, «iaz handia izan bazen, aurten handiagoa izan da».

Ezkututik azalera atera nahi dituzten gatazken artean dago, baita, langileena eta lan arloan emakume eta gizarteak zapaldutako sektoreek bizi dutena. LAB sindikatuko kide Ainhoa Etxaidek uste du enpleguaren ardatzak borrokatzeko bide asko dituela, eta martxoaren 8rako egindako deialdiarekin bat egin zuen sindika-

tuak. LABen iritziz, lanuztea aukera bat da, tresna bat emakume langileen egoera eztabaidaren erdian kokatzeko, mugimendu feministak egiten dituen irakurketak eta aldarrikapenak txoko guztietara eramateko eta, nola ez, emakumeak borroka batzeko zubiak eta bideak eraikitzeko. «Lan gatazka asko eta ekimen sindikal handia dago Euskal Herrian; azken urteetan biderkatu egin dira lanuzteak, eta horren ondorio da hainbat hitzarmen sinatu direla eta negoziazio kolektiboak bizirik jarraitzen duela, lan erreformak lan eskubideak defendatzeko tresna bezala likidatu nahi izan badu ere». Hala, greba feministarekin bat egitea langile bakoitzaren aukera izan dela dio, «tresna bat da lan munduan eta lan mundutik kanpo egiten dugun lanaren balioa aldarrikatzeko».

Emakume langileon ahalduntzeak duen garrantzia ere azpimarratu du: «gure ekimenez eta gure eskubideen alde aurrera urrats bat ematea suposatzen baitzuen greba egiteak emakume askorentzat». Etxaidek dio lana sexu-generoen arabera antolatua dagoela oraindik: «hori nabarmena da lan munduan eta argazki hori ikusgarri egitea izan da grebaren funtsa». Alabaina, emakumeen greba ohiko greben arabera neurtea akatsa iruditzen zaio LAB sindikatuko ordezkariari. Dioenez, martxoaren 8an helburua ez delako izan produkzioa gelditzea, emakumeek egiten duten lana aldarrikatzea eta ikusgarri egitea baizik.



Soldata arrakalaren adibidea ipini du Etxaidek. Gizarteak oraindik arazoak ditu ulertzeko soldata arrakala kopuru bat baino askoz gehiago dela; horrenbestez, bere osotasunean aztertzeo oraindik zailtasunak ere baditu gizarteak. «Bizitza osoan lan egin arren inolako eskubiderik ez duten emakumeen egoera plazara ateratzea gure erantzukizuna ere badela pentsatzen dugun emakumeak gara ka-lean gaudenak. Borroka feministan sinesten dugun emakumeak». Hala, greba deitzearen arrazoietakoa bat izan da greba egunaren ostean egoera birplanteatzeko gai diren emakumeak mobilizatzea. Grebak bidea egiten jarraitzeko balio behar duela dio Etxaidek, hori oinarrizkoa dela, eta martxoaren 8ko grebak oinarri hori izan duela.

Hain zuzen, iazko mobilizazioen emaitzetako bat izan zen soldata arrakalari buruz eztabaidatzeko mahaia deitu zutela, eta Eusko Jaurlaritza eta patronala soldata arrakalaz eztabaidatzera behartu zituela egoerak. Soldata arrakala egon badagoela eta arazoa politikoa dela onartu dute.

EGUNEROKO LANA, ETA DENONA

Emakumeek hartu dituzte kaleak martxoaren 8an. Emakumeak izan dira protagonistak. Baina gizonetako ere bete beharreko papera izan dute mobilizazio horretan. Emakundek sustatzen duen erakundea da Gizonduz, gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko. Haiek ere bat egin zuten martxoaren 8ko planteamendurekin. Emakundeko Gizonduz programaren koordinatzaile Ander Bergara Sautuak esan legez, «Euskal Herriko mugimendu feministak adierazi duen moduan, martxoaren 8an gizonok ez gara izan protagonistak, baina bage-nuen egun horretan zeregin garrantzitsu bat; hain zuzen ere, zaintza lanekin arduratzea, emakumeek greba egin, eta mobilizazioetan parte hartu ahal izateko». Aurrera begira jartzearen garrantzia azpimarratu du: «hurrengo egunetan ere berdintasunaren aldeko jarrerari eustea; izan ere, hori da martxoaren 8aren helburua». Bergararen esanetan, eskertzekoa izan da antolatzaileek greba bultzatzeko argitaratu duten gizonentzako gida, «gutaz zer espero den argi uzten baitu». Hala ere, kontziente

dira berdintasunaren aldeko borroka egun batetik harago landu beharrekoa dela, eta gizonetako ere dagokien zaintzaren ardura beregain hartu beharko luketela egunerokoan. Helburutzat hartzen dute hori, planteamenduak idealak iruditu arren, errealitate bilakatu baitaitezke, Gizonduzeko koordinatzailearen iritziz.

Bide horretan martxoak 8a bezalako egunak beharrezkoak diren arren, egunero lan egin behar dela aipatu du Bergarak, emakumeek jasaten duten diskriminazioa eta indarkeria desagerrarazteko. «Badaude horretan buru-belarri ari diren pertsonak, taldeak eta erakundeak, baina ez da nahikoa: gizartearen gehiengoaren inplikazioa behar da. Eta jakina, gizonok ere inplikatu behar dugu modu pertsonalean eta kolektiboan». Emakumeen borrokarekin bat egiten duten gizonetako dudarik ez dute grebara doazen emakumeak oinarridunak eta egoerarekin kontziente direla: «Emakumeek sufritzen duten diskriminazioa eta indarkeria munduan hedatu dagoen giza eskubideen urraketa da. Halako mobilizazioak lagungarriak dira herritarrak egoeraren larriaz eta tamainaz ohartarazteko».

Horregatik, hain zuzen, martxoaren lan eremutik harago joan da 8ko deialdia. Bergarak azaldu legez, grebak bizitzako esparru guztiei aurre



egitea izan du xede: indarkeriari, parekidetasun ezari, prekarietateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzen hierarkizazioari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei. «Jakina, horiei guztiei egunero eta denok egin beharko genieke aurre, eta, hain zuzen ere, hori aldarrikatu nahi izan dute martxoaren 8ko mobilizazioetan». Hala ere, inplikazio handiagoa beharrezkoa dela dio Gizonduzek. «Gaur egun erakunde publikoek berdintasunaren alde egiten dutena duela urte batzuk egiten zutena baino askoz gehiago da; baina, ez da nahikoa. Lan handia dago oraindik egiteko, eta, horregatik, pentsaera, adin, jatorri eta klase sozial desberdinetako hainbeste emakumek parte hartu zuten martxoaren 8ko mobilizazioetan». Gizonduz erakundeak uste du gaiari benetako lehenetsuna eman behar zaiola.

Baina emakumeen arazoei denon artean eta egunero aurre egiteko, ezinbestekoa da gizarte kontzientziatua. Steilas sindikatuak dioenez, eskoletan hezkidetzaren arloa jorratu izan dute duela 40 urte sindikatua sortu zenetik. Baina azken urteetan, esperientzia ugari bultzatu arren, askotan ekimen puntualak izan direla aitortu du. «Gaur egun ukazina da genero ikuspuntua ezinbestekoa dela gizarte justu bat lortzeko. Hala ere, askorentzat berdintasunaren alde egunero egin beharrekoek ez dute oraindik horrenbesteko garrantzirik». Perezen ustetan, baina, gero eta jende gehiagok daki feminismoa aldaketa sozialerako ezinbesteko tresna bilakatu dela eta teoria feminista beharrezkoa dela errealitatea aztertzeko, «baita praktika feminista ere, errealitatea eraldatzeko. Hori dela, eta, feminismoa behar dugu eskolan, eta hezkidetzatik jauzia egin behar dugu, pedagogia feministarantz abiatzeko».

Aurten, martxoaren 8an, feminismoak, mugimendu transbertsala denak, kaleak hartu dituela dio sindikatu horrek, eta

aniztasun inoiz baino handiagoa plazaratu duela. «Ikastetxeetan ere arrakasta handia izan du. Ikasle neskak antolatu, eta kalera atera dira, baina ez da egun bateko lana, ikasturte osokoa baizik. Hezkuntza komunitateak feminismoa hezkuntzako agendetan sartu du». Jauzi kualitatiboa nabaritu du Steilasek ere. Sindikatuak ez, mugimendu feministak deitu duen greba izan da, eta arrakastatsua izan da, gainera. «Azken urteetan, neska gazteek errelebo hartu dute, eta aktibista bihurtu dira. Militatzeko formula berriak plazaratu dituzte, baina era kolektiboan lan egiteko estrategiak ere diseinatu dituzte».

ADMINISTRAZIOAREN LANA, EZ-NAHIKOA

Steilasek ustez, hezkidetzak posible egin dezake feminismoak borrokatu nahi dituen hainbat errealitate aztertzea. «Zoru bat ahalbidetu du, non feminismoak gauzatu nahi duen eraldaketa posible den. Hezkidetzatik kristalezko sabaiari buruz hitz egin dugu, edota curriculum ezkutua inguruan; agindu kulturalekiko jarrera kritikoa sustatu dugu, lanaren banaketa sexuala indentifikatu eta androzentrismoa detektatu curriculumetan». Sindikatuak, baina, kritikatu egin du Eusko Jaurlaritzak errealitate horren aurrean behar bezala ez erantzutea. Steilasek ustez, Hezkuntza Sailak ez du asmatu gaiari heltzen, eta urteko hirugarren unitate didaktikoa lantzeari ekin dio. Unitate horien bitartez hainbat gai jorrotzen dituzte ikasleek: M8 harremanak berdintasunean, A25 indarkeria sexistaren prebentzioa eta maiatza aldean LGTBI+.

Martxoaren 8aren ostean, sindikatuak argiago ikusten du ezinbestekoa dela sistema patriarkal-hegemonikoa suntsitzeko eguneroko borroka, bai norbanakoena eta bai kolektiboena ere. «Ikastetxeetan hezkidetzatik pedagogia feministara jauzi kualitatiboa eman beharko dugu. Feminismoa errealitatea ulertzeko ezinbeste-

koa da, baina praktika feminista sistema eredu eraldatzeko derrigorrezkoa ere bada, eta horretarako curriculumak aldatu beharra dago». Patioak eta jolaslekuak demokratikoagoak eta berdinzaleagoak izan beharko lirakeela ondorioztatu dute, eta hizkuntza inklusiboa erabiltzearen alde lan egingo dute, beste gauza batzuen artean.

Hezkuntza Sailak, bere aldetik, hezkidetzaren planak diseinatu ditu, eta martxoaren 8ko astean bigarren plana aurkeztu du. Hala ere, Perezek dio plana gauzatzeko ez direla behar diren baliabideekin hornitu. Haren ustez, erakunde publikoek egiten dutena ez da nahikoa; «bestela beste egoera batean ginatke». Arlo teorikoan berdintasunaren aldeko adierazpenak egin arren, asko falta da berdintasun erreala lortzeko urrats sendoak emateko. Perezek dioenez, badira oraindik ere ikasleak sexuen arabera banatzen dituzten ikastetxeak. «Hezkidetzaren edota Pedagogia feminista ez da sartzen irakasleak izango diren ikasketetan eta ondorengo formazioetan ere ez. Planak diseinatzen dituzte baina horiek aurrera eraman ahal izateko ez dute baliabiderik».

Eta Steilasek ustez, zaila da beharrezkoak diren baliabide ekonomikorik gabe behar bezala funtzionatzea, eta hutsunerik handienak irakasleen formazioan, ordu kredituetan, giza baliabideetan eta curriculumetan ikusten ditu. «Unibertsitatean ere genero ikuspuntua txertatu beharko litzateke ikasketa plan guztietan eta, batez ere, Magisteritza eskoletan eta irakasle izateko masterretan».

Aldaketa soziala lortzeko, hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko ezinbestekoa da. «Eremu eta arlo guztietan genero ikuspuntuak txertaturik egon beharko luke: curriculumean eta testu liburuetan emakumeak eta haiek egindako ekarpenak bildu behar dira, eta espazioen antolaketa ere beharrezkoa da: patioetan eta eskolaz kanpoko ekintzetan, esate baterako». ■

Hautaketa edo autoengainua?

Gaur egun enplegu publikoaren esparruan egiten den «hautaketa»ri buruzko hamabi tesi (eta II)¹

RAFAEL JIMÉNEZ ASENSIO

AHOLKULARI INSTITUZIONALA/UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN AKREDITATUA

9 Ez da gauza bera aldi baterako enplegua egonkortzea eta lanpostuak aldi baterako okupatzen dituzten pertsonak egonkortzea. Arestian aipatutakoaren aurka, zera argudia daiteke: lehen deskribatutako salbuespenezko egoeren ondorioz, 2017ko eta 2018ko Estatuko aurrekontu orokorren legeek berariaz gehitu zituzten (Gobernuak eta sindikatuak enplegu publikoa hobetzeko hitzartutako itunen ondorioz) langileen birjartze-tasak, zeinek xede nagusitzat aldi baterako enplegua egonkortzea baitzuten. Kontua da, baina, ez dela gauza bera (sektore publikoko sindikatuak tematu arren eta profesionalizatu gabeko enplegatzaile publikoek abalatu arren) aldi baterako enplegua egonkortzea eta bitarteko langileak egonkortzea. Lanpostuak egonkortzen dira, eta, ez, ordea, horiek betetzen dituzten pertsonak. Pertsonak hautaprobak gaindituko dituzte, ala ez. Eta hemen dator, hain zuzen ere, nahastea. Duela aste batzuk, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko magistratu batek, José Ramón Chaves jaunak, bere webgunean idatzi zuen hautapropa deritzen proba horien guztien egungo ibilbidea zalantzan jartzen zuen artikulua gogor eta zuhur bat, horien funtzioa

bitarteko langileak plantillan sartzea dela argudiatzen duena. Halaber, aditzera eman zuenez, halako jardunbideen aurka errekurtsorik aurkeztuko balitz, irabazteko aukera handiak egongo lirarteke, proben diseinuak hain baldarrak izanirik (ez dira berez hautapropa) baztertu egiten baitira berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, Konstituzioan jasota daudenak, hain zuzen. (<https://delajusticia.com/2018/11/26/oposiciones-de-cabaon-piedra-mas-ruido-que-nueces/>). Egia da, hala ere, egile horrek berak dioenez, errekurtsio gutxi jartzen direla. Baina errekurtsorik ez jartzeak ez du esan nahi jar ezin daitekeenik (edo are, jarri behar ez denik). Ikusteke dago prozesu horien partaide ikusezin diren milaka dozenaka hautagaietako batek errekurtsorik aurkezten duen ala ez itxurakeriazko proba horien aurrean. Izan ere, funtsezko eskubideak eraginkortasunez baliatzeko modu bakarra da antolamenduak eskaintzen duen berme-sistemara jotzea. Era berean, herritarren eskubideak eta askatasunak defendatu behar dituzten beste erakunde batzuek hartu beharko lukete gai hau bideratzeko ardura, eta dagozkion neurriak hautagaien zati handi bati iruzurra egin zaiola ikusten den kasuetan.

10 Talentua erakartzea ez da bateraezina emandako zerbitzuak modu arrazoizkoan zenbates-tearekin, baina, horretarako, lanpostu bakoitzeko zereginak betetzeko gaitasunak benetan neurtzen dituzten eta jardunbide ona aurreikusten duten hautaprobak prestatu behar dira. Horrekin ez dut esan nahi bitarteko langile gisa emandako zerbitzuak zenbatetsi behar ez direnik, baina lanpostua eskuratzeko zenbaketa horrek ez luke erabakigarria izan behar (izan ere, Konstituzioko printzipioak sendotze aldera, komeniko litza-teke atalasea ez izatea zenbateko osoaren ehuneko 25etik gorakoa, baina gai honetan Konstituzio Auzitegia askoz bigunagoa izan zen duela ia hiru hamarkada). Aitzitik, lehentasuna izan beharko luke hainbat eskumen egiaztatzeak, besteak beste, ezagutza, trebetasunak, jarrerak eta gaitasunak. Horretarako, kualifikazio berezia behar duten lanpostuetarako (goi-mailako teknikariak), ikuspegi teoriko eta praktikotik zorrotzak diren probak egin beharko lirarteke, bai eta adimena neurtzeko test psikoteknikoak edo jarrerazko elkarriketa egituratuak ere. Ezin dugu ahaztu, horren harira,

¹ (103. alean, artikulua honen lehenengo zortzi tesiak argitaratu genituen)

hautapropa horien artean, Mikel Gorritik (2018) aztertu duena. Gorritik dio baliozkotasun baliozkotasun-koefizienterik altuena adimena neurtzeko test psikoteknikoek daukatela, bigarren postuan daudela proba praktikoak, eta, azkenik, ezagutza-probek dutela indizeirik baxuena (nahiz eta nortasun-testen korrelazio-indizea are baxuagoa izan). Hala ere, administrazio publikoek garrantzi handia ematen diete oraindik ere ezagutza-probei eta proba praktikoei, eta oso gutxi garatzen dituzte adimen-testak, nahiz eta aurreikuspen-ahalmen handiagoa duten, kasuan kasuko pertsonak lanpostuaren zereginak era egokian garatzeko duen gaitasuna zehazteko orduan. Kasu horietan, bada, zera egin beharko litzateke: lehiaketa-oposizioko prozesuen hautapenezko izaera indartu, proba horiek ez daitezen bihurtu gezurrezko edo autoengainuzko hautapropa (bere burua engainatzen duen lehena administrazio publikoa baita). Administrazioaren asmoa lehendik ere bitarteko gisa lanean ari diren horiek sartzeko modua antolatzeari baita (gauzak horrela, probetan ez da hautaketarik egiten). Beraz, hautagai asko aurkeztu arren (milaka dozena izan daitezke), ez dira egiazkoak prozesu horien izaera publikoa eta norgehiagoka askea. Oposizio-fasea hautagaien ehuneko 80 edo 90ak gainditzen duenean, argi dago lehiaketako puntuak batzea dela lortu nahi den helburu bakarra, bitarteko gisa egondako denbora eta merezimendu formalak baloratzen baitira halakoetan. Hori ez da hautatzea; hori autoengainua da. Administrazioak, modu horretan, ez du talenturik erakartzen. Lortzen duena da lehendik dituen bitartekoak planti-

llan sartzeari. Eta okerrean da gainerako hautagaien zerrendetan (*polsetan*) sartzeari baino ez dutela nahi, *sorgin-gurpilari zitalki eusteko*. Norbaitek amaiera eman beharko lioke zurrumbilo anker horri. Demokrazia aurreratuko ezerein administrazio publikok ez ditu horrela hautatzen bere langileak. Datu hori gogoan eduki behar da. Ez da aski «amaiera emateko lege» baten alde egitea (hau da, bitarteko guztiak legez plantillan sartu eta orduan hastea hautaketa-prozesu zorrotzak; aukera hori sostengaezina da). Izan ere, lege horiek galbidea eragiten dute, eta «amaierarik gabeko legeak» bihurtzen dira, salbuespenak behin eta berriro errepikatu eta arau bihurtzen baitituzte. Ustezko «gizarte-bakea» (betiko aitzakia) lortzeko, hipoteka altuak sortzen dira etorkizunerako. Eta erabaki horiek, zorritzarrez hartuko diren horiek –nahiko nuke oker ibili– ondorio larriak izango dituzte etorkizunean, administrazio publikoetan profesionalizazio-maila baxuak izango baititugu, talentua erakartzeko gai ez direnak, eta «sistema» horien bidez kaskarkeria sustatuko dutenak. Faktura geroratu egingo da (hori da, hain zuzen ere, «ereduaren» indargunea), eta, unea heldzean (ordaindu behar denean) ez du inork hartuko kostu hain altuaren erantzukizuna.

11 «Oposizio serio» deritzanek ere diseinuan bizio handiak dituzte eta emaitza eztabaidagarriak sortzen dituzte. Gainera, eskakizun formal handiagoak eskatzen dituzten hautaketa-prozesuak egiten diren tokietan, halakoak ere badira eta (esaterako, Estatuko Administrazio Orokorreko puntako kidego batzuetan, autonomia-erkidego eta udal batzuetan), sartzeko sistema horiek hutsune handiak dituzte hautaketa-prozesu zaharkituetan oinarritzen direlako. Hortaz, hutsuneak ageri dira honako arlo hauetan:

- Hautapropa horiek prestatzeko epealdian: hiru, lau edo bost urtera arte luzatu baitaitezke.
- Prestatzaileen figura bereziaren eskakizunean: kasu askotan, «beltzean» kobratzen duten goi-mailako funtzionarioak edo epaileak jartzen dituzte.
- Proben formatuan: gai-zerrenda luzeak dira, unibertsitatean egiaztatzen diren ezagutzak aztertzen dituztenak.
- Egitura osoa klasikoak eta egungo egoerarako egokiak ez direnak baliatzen dituzten ariketetan: gaiak buruz ikasi eta botatzen dira, adimen-testik edo jarrerazko elkarrizketa egituraturik egin gabe.

Hautaketa-tekniken gaineko espezializatorik ez duten epaimahaietan: kasu batzuetan, prozesuetan prestakuntza-fase batzuk sartzan dituzte, baina ez dira oso eraginkorrak eta ez dute hautaketa negatiboko emaitzarik eragiten. Gainera, azpi-

marratzekoa da, demokrazia aurreratuan goi-mailako funtzionarioak hautatzeko erabiltzen diren sistemen aurrean (gai honi buruz ikusi: Clara Mapelli, 2018), gure administrazio publikoek XIX. edo XX. mendeko irizpideak kontuan hartuz hautatzen jarraitzen dutela, hots, guztiz gainbeheran dauden irizpideen arabera. Eta orain arte ez da inolako urrats eraginkorrik egin disfunczio horiek zuzentzeko.

12 Etorkizuneko erronkak: erretiro masiboen zioz hutsik geratuko diren lanpostuak bete behar direnez eta iraultza teknologikoak Administrazioan eragin nabarmena duenez, enplegatu publikoak hautatzeko modua eta sistema errotik birpentsatu beharra dago. Gogoan izan behar da, ondo gogoan ere, datozen hamabi urteetan funtzio publikoan belaunaldien aldaketa handia egongo dela, enplegatu publikoaren ehuneko oso altua erretiratuko baita (zenbateko horiek, administrazioen arabera, plantillaren ehuneko 50 eta 80 artean daude). Enplegu publikoan langileak zaharkitzen ari dira, eta hori datu objektiboa eta kezagarria da. Halaber, iraultza teknologikoak eragina du enplegu publikoan ere, automatizazioaren eta adimen artifizialaren ondorioz errotik aldatuko baititu lanpostu askoren zereginak, horietako asko makinek garatuko dituzte-eta. Horrek, bada, eragina izango du, neurri handiagoan edo txikiagoan, lanpostuak betetzeko orduan, eta, kasu batzuetan, lanpostu horiei eusteak mezezi duen ala ez erabakitzeke orduan.

Ondorioz, erretiro masiboak aukerak zabaltzen dituzten leihoak izan litezke, sektore publikoak «lanpostu hutsak modu inteligentean kudeatzen baditu» (Gorriti, 2018), zehaztu egin beharko baita zein lanpostuk ez duten jasan iraultza teknologikoaren eraginik, zeintzuk eraldatu diren nabarmen (zereginetan), eta, are, zeintzuk amortizatu behar diren funtziorik gabe geratu direlako. Horrenbestez, kontuan hartuta erretiroen ondorioz enplegatu publikoak masiboki irtengo direla, aukera-leihoak irekitzen dira etorkizuneko administrazio publikoetan beharko diren lanpostuen profil berriak zehazteko. Halaber, maila teknikoan, STEM titulazioak (Zientziak, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak) gailenduko dira. Bi prozesu horiek uztartuta, beharrezkoa da administrazio publikoak sektore pribatuarekin lehiatzea, talentua erakarri, eta, ondoren, erakunde publikoetan sartzeko. Baina zentzuz lehiatzeko, administrazio publikoak bere hautaketa-prozesuak eta hautaketa horretan aplikatutako metodoak errotik birplanteatu beharko ditu. Ba al dauka zentzurik zientzialari, teknologo, ingeniari edo matematikari onenak hautatzeko gaur egun administrazio publiko guztiek darabiltzaten proba motak eta gai-zerrenda luzeak baliatzea? Irmoki baiezta daiteke eredu hori argi eta garbi disfunczionala eta ez eraginkorra dela, talenturik onena erakarri nahi baldin bada. Horrenbestez, iraultza teknologikoaren trena galdu nahi ez bada, administrazio publikoak seriotasunez pentsatu beharko luke nola birplanteatu errotik langileak erreklutatu eta hautatzeko prozesuak. Ez dago beste biderik. Ez saiatu bilatzen. ■

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

- AAVV (Administradores Civiles del Estado): *Nuevos tiempos para la función pública. Propuestas para atraer y desarrollar el talento en la Administración General del Estado*, INAP, 2017.
- J. Javier Cuenca Cervera, *Instrumentos de planificación de recursos humanos y selección: ¿cambio de paradigma?*, RVOP 14-2.
- Javier Cuenca, *Transparencia y Función Pública*, CEMICAL, 2018.
- José Ramón Chaves, *Vademécum de oposiciones y concursos*, Alamarante, 2017.
- Jorge Fondevila Antolín, *Problemas y soluciones al Empleo Público actual. Una valoración a los 10 años de la aprobación del EBEP*, CEMCI, 2018.
- Jorge Fondevila Antolín, *Manual para la selección de empleados públicos*, 2. edizioa, Wolters Kluwer, 2018.
- Fundación Telefónica/Prospektiker: *El trabajo y la revolución digital en España. 50 Estrategias para 2050*, 2018.
- Mikel Gorriti Bointigui, “Innovar en selección desde la evidencia empírica y las nuevas competencias”, RVOP 14-2 zk.
- Manuel Alejandro Hidalgo, *El empleo del futuro. Un análisis del impacto de las nuevas tecnologías en el mercado laboral*, Deustu, 2018.
- Rafael Jiménez Asensio, “Repensar la selección de empleados públicos. Momento actual y retos de futuro”, RVOP 14-2 (Sarrerako azterketa).
- Clara Mapelli, “La visión comparada: nuevos sistemas de selección de la alta función pública en las democracias avanzadas”, RVOP 14-2.
- Elisa de la Nuez: “Acceso a la función pública: atraer talento y cambiar el modelo”, RVOP 14-2.
- C. Ramió/M. Salvador, *La nueva gestión del empleo público*, Tibidabo Ediciones, 2018.

«Içioqui dugu»

EDORTA ESPAÑA OCIO
DONEMILIAGAKO SUKALDARIA

Goizaldeko ordu bi eta erdiak ziren. Donemiliaga Kukula herriko biztanleak lo goxo eta ederrean zeuden arren, Goiko

Donemiliagako abadiako fraideak esnatu berriak ziren, itzartu eta lehenengo eskerotoitzean. Aurpegia garbitu eta gero, egunero, otoiitz-gelara joaten ziren guztiak hirurak aldera. Gaur, ordea, fraideetako bat, Iriarte anaia, berandu etorri da.

«Salve Regina» kantuaren lehenengo ahapaldia entzun bitartean, monasterioaren korridorean, urrats-hots gero eta ozenagoak eta hurbilagoak aditzen ziren, norbait korrika baletor bezala. Bat-batean, otoiitz-gelako atea zabaldu eta...:

–*Fratres karissimi!!* Bidaiaria hiltzear dago!

Izan ere, aurreko egunean, bisitari bat agertu zen monasterioan, aldean makila eta poltsa baino ez zekarrela. Abadiako atea jo, eta zabaldu egin zioten.

–Arratsalde on Jainkoak.

–Hala demaigula.

–Zer nahi duzu, ba?

–Ostatu ematea nahi nuke, gau baterako besterik ez.

–Ondo etorri geure etxera, zeurea ere bada eta. Atseginez hartuko zaitugu, eta geure jan-edanak zurekin partekatuko.

Atea parez pare ireki, eta bidaiaria barrura sartu zen. Ateko fraideak abadiako na-

gusiaren era eraman zuen, bertan geratzea baimendu zezan. Eta hala egin zuen.

–Jakin ezazu gure ordutegira tolestu beharko duzula.

–Horixe, lekaide nagusia.

Iluntze hartan, afal ostean, txarto sentitzen hasi zen etorri berria. Logelara eraman zuten, eta bertan konturatu ziren sukarrak hartuta zeukala. Ur hotzeko zapiak buruan jarri, eta beroa apur bat jaitsi zitzaionean, bakarrik utzi zuten logelan.

Hurrengo egunean, matutietan zeudela, abadiako nagusia berehala ohartu zen bidaiaria ez zegoela haiekin batera, baina ez zion garrantzi handiagorik eman («Esan, bai, gure ordutegira moldatuko zela, baina hitza bete...»).

Eta orduantxe izan zen lekaidea gelara zarataka sartu zenean. Izugarritzko iskanbila sortu zen errezo-giroaren erdian, eta lekaide batzuk arrapaladan joan ziren bidaiariaren gelara. Sartu zirenean, gizonak honela esan zien:

–Zaindu ezazue, otoi, poltsan dudana liburu, gure munduari buruz sekula idatzi den onena da eta.

Hori esan, eta azken arnasa eman zuen gizonak, bestelako azalpenik eskaintzeko denborarik izan gabe. Lekaide nagusiak azken igurtzia eman zion hilberriari, eta gelatik atera zuten gorpua.

Abadiako nagusia harrিতuta geratu zen gizonak esandakoarekin, eta liburu hartu zuen liburutegiko zaintzaileari erama-

teko. Baina, lehenago, begirada arin bat eman zion.

–Jainkoarren! Zer da hau!!! *In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti!*

Liburuak *Natura mater* zuen izena, eta kristautasuna nagusitu aurretik ziren sinismen, praktika eta jokabide paganoak jasota zeuden bertan. Berehala eman zion fray Lopategiri, liburuzainari, lekuri ezkuenean gorde eta inork irakur ez zezan. Baina liburuzainak, jakinminez, liburutegira heldu zenean, arretaz irakurri zuen. Bera ere zur eta lur geratu zen, eta lagun min bati, fray Zabalari, kontatu zion klaustroko ibilaldi batean aurkitu zuenean. Biek ere, Lopategik eta Zabalak, liburutegiko lana zuten eginkizun, eta biek idazten zituzten latin zaharrean izkiriaturako kodizeen orri-ertzetan hainbat eta hainbat ohar kaleko lengoaiari, latinetik urruntzen ari zen hizkuntzan. Herriko jendeak ez zituen jada ondo ulertzen abadeek latinez irakurtzen zituzten pasarteak, eta, azalpenak emateko edo, herriko hizkeraz idazten zituzten oharrok.

Monasterioan, gai horren inguruan, sekretu-giroa zabaldu zen, eta horretaz hitz egiteak abadiako nagusiaren errieta zekarren berehala. Nahiz eta agindua izan liburu haren berri ezin zela zabaldu lekaide-etxekoan artean, azkenean, denak enteratu ziren liburuan jasotako azalpen paganoez. Arazoak jabeturik, abade nagusiak erabateko debekua ezarri zuen gorabeheraz hitz egiteko, eta gaineratu zuen, orobat, gai hartaz mintzatzen zena ez zela Jainkoaren beldur izango, eta hori



izango zela Donemiliagatik bidaltzeko arrazoia.

Harrezkero, ez zen ezer entzun zorioneko liburuaz. Alabaina, Lopategi eta Zabala liburuzainek, beren ardurapean zuten liburuaren arta, haiek biak idazgelan bakarrik zeudenean, gaiaz jarduten zuten. Biak, ordea, ez ziren iritzi berekoak. Monasterioan, isilpean bazen ere, ahoz aho zebilen auzia, batzuk alde, beste batzuk kontra, eta ezadostasun-giroa nagusitu zen.

Giro nahasi hartan, lider biak konturatu ziren ezen, horrela jarraitzekotan, arriskuan izango zela euren egotea monasterioan, behin baino gehiagotan aurkitu baitzituzten ditxosozko gaiari buruz eztabaida betean. Eta, horregatik, idatzizko modu bat asmatu zuten arazoari buruz hitz egiteko: inork ezer esateko edukitzekotan, labur-labur idatzizko zuten aurreko urteko kodizean. Baina, latinez edo sortzen ari zen lengoia berri hartan idatzi beharrean, euskaraz idatzizko zituzten mezuak. Egunero begiratu zuten aurreko urteko kodizea, eta bietako batek lerro batean zerbait idazten zuten bakoitzean, besteak lerro batzuk beherago jarriko zuten erantzuna, honela kodetuta: hasierako mezuaren lerro-zenbakiaren ezkerreko zifra eta erantzunaren lerro-zenbakiaren eskuineko zifra batuta, eta hasierako mezuaren lerro-zenbakiaren eskuineko zifra eta erantzunaren lerro-zenbakiaren ezkerreko zifra batuta, emaitza bera izango zen bietan. Esate baterako, batek 13. lerroan idazten bazuen hasierako mezua, besteak 35. lerroan erantzungo zuten; izan ere, 1 + 5 eta 3 +

3 sei da bietan. Horixe izango zen euren kodea. Berrirori ez zuten, ahoz behintzat, gaiari buruz hitz egin.

Gau batean, monasterioko biztanle guztiak lo zeudela, fray Zabala eta beste biak liburutegira joan ziren ditxosozko liburuaren bila. Zabalak bazituen hango gela guztien giltzak. Liburutegira sartu, pasadizo sekretua ireki, eskailerak igo, eta liburu bila hasi ziren. Fray Lopategik baino ez zekien zehatz-mehatz non zegoen kokatuta. Zabalak zekien bakarra zen liburuaren bizkarrak izartxo bat zeukala margotuta. Hara eta hona ibili ostean, kostata, baina aurkitu zuten. Abituaren azpian gorde, eta sukaldera abiatu ziren. Liburuaren erretzea zen euren asmoa. Sukaldera sartu ziren Zabala eta beste biak, eta sutegian geratzen zen sugeldora bota zuten liburu. Suak hartu zuten be-

rehala, eta hantxe amaitu zen «gure munduari buruz sekula idatzi den libururik onena».

Hurrengo egunean, monasterioko lekaide nagusiaren belarrietara heldu zen aurreko gauean gertatutakoa, eta ikertzeko peskizak hasi zituen, ea zeinek egin zuen jakiteko. Argi zegoen liburutegiko norbaitek izan behar zuela, eta handik hasi zen ikerketa.

Aurreko urteko kodizea irekita zegoen, eta Zabalak honela idatzi zuen 31. lerroan: «Içioqui dugu», alegia, piztu egin dugu. Era hartan aitortu zion Zabalak bere lagun minari bera eta bere aldekoak izan zirela liburuaren zutenak. Egun berean, Lopategi lekaideak honela erantzun zuen 42. lerroan: «Guec

ajutu ez dugu», alegia, guk ez dugu lagundu edo ez dugu parte hartu erreketan; hau da, nola edo hala, egindakoarekin ados ez zegoelako aitormena.

Liburutegian ikertzen hasita, laster aurkitu zituzten lekaide bien arteko euskarazko mezuak, eta egileak identifikatu zituzten. Fraide biak monasteriotik bidaltzeaz gain, erabat debekatu zuten liburu santuak komunikatzeko tresnatzat hartzea eta mezuak euskaraz agertzea. Horregatik, handik aurrera, ez zen euskarazko mezua idatzi gehiagorik agertu Donemiliagako monasterioko liburu santuetan.

Gaur egun, bi esaldi horiek, oraingoan, euskaraz idatzitako lehen testutzat jotzen dira (*Aemilianensis* 60 kodizea; 67v eta 68v orrialdeak; 31 eta 42 glosak). ■

Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria

PATXI PETRIRENA

ITZULTZAILEA ETA ZUZENTZAILEA

Berriki argitaratu da euskaraz Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria (9/2017 Lege¹), aurreko 2/2011 Legea indargabetu duena. Testu horrek administrazioen kontratuetan izango duen erabilera eta eraginagatik, interesgarria iruditu zait zenbait hitz eta termino jasotzea. Ordena alfabetikoan emango ditut (parentesi artean artikulua zenbakia doa gehienetan), eta amaieran ohar bat egingo dut zerrendako lehen bi hitzez.

- adjudikatu, adjudikazio
- administrazio-klausula partikular
- ahal: kontratua aldatzeko ahal (203), *potestad de modificación del contrato*
- aholku-organo (328), *órgano consultivo*
- aldaeren onarpen (142), *admisión de variantes*
- aldatu: obrak aldatzea (261), *modificación de las obras*
- arrisku eta menturaren printzipio (197), *principio de riesgo y ventura*
- autoantolaketakarako ahalmen (31), *potestad de autoorganización*
- azkendu: kontratua azkentze (209), administrazio-kontratuak azkentze, emakida azkentze (278), *extinción*
- azpikontratatu, azpikontratista (215)
- bahitu: emakida bahitzea edo hartan esku hartzea (263), *secuestro o intervención de la concesión*
- baldintza-agiri (285), *pliego de condiciones*
- baliogabetasun-araubide (38), *régimen de invalidez*
- berandutu, berandutze: berandutzeagatik kontratua suntsiarazte (195), *resolución por demora*
- berme: behin-behineko berme, behin betiko berme, behin betiko bermeak itzuli eta kitatzea (111), *devolución y cancelación de las garantías definitivas*
- berrikuntzarako elkartzeko prozedura (177), *procedimiento de asociación para la innovación*
- berrikuste, berrikuspen (prezioena), *revisión de precios* (103)
- bete: administrazio-kontratuak betetze (192), kontratua betetze (210), obra-kontratua betetze (243), *cumplimiento*
- bideragarritasun-azterlan (247), *estudio de viabilidad*
- botere adjudikatzaile (321), *poder adjudicador*
- burutu: kontratua burutze, *celebración del contrato*
- deuseztasun: deuseztasun-kausak (34), *causas de nulidad*
- egikaritu, egikaritze, *ejecutar, ejecución (del contrato)* (192), egikaritzean berandutze (193), *demora en la ejecución*
- emakidadun, *concesionario*
- enkante elektronikoa, *subasta electrónica*
- errakuntzak konpondu eta akatsak zuzentzea (310), *subsanción de errores y corrección de deficiencias*
- erregulazio harmonizatuko kontratu, *contrato sujetos a regulación armonizada*
- errekurtsu berezi (44), *recurso especial*
- errentamendu (298), *arrendamiento*
- eskaintza nabarmenki baxuegi (149), «oferta anormalmente baja»
- eskudirutan ordaintze (302), *pago en metálico*
- eskuratze-sistema dinamikoa (223), *sistema dinámico de adquisición*
- esparru-akordio (219), *acuerdo marco*
- eten: kontratua etete (208), *suspensión del contrato*

¹ https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2017/11/09/pdfs/BOE-A-2017-12902-E.pdf

- exekutatu: hipoteka exekutatze (275), *ejecución hipotecaria*
- ez-betetze partzial edo betetze akastun (192), *incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso*
- ezkutuko akatsengatik erantzukizun (244), *responsabilidad por vicios ocultos*
- ustekabeko inguruabar (205), *circunstancia imprevisible*
- formalizatu: kontratua formalizatzeko (153), *formalización del contrato*
- hartu: obra hartze (243), *recepción de la obra*
- hartzekodun hipotekario (274), *acreedor hipotecario*
- honenbesteko: prezioa honenbesteko bat duten obrak (241), *obras a tanto alzado*
- hornidura-kontratu (298), *contrato de suministro*
- irakaskuntza-jardunetarako kontratazio-araubide (310), *régimen de contratación para actividades docentes*
- itzultze (291), *reversión*
- izapidetu, izapidetze, *tramitar, tramitación*
- jarduteko gaitasun (84), *capacidad de obrar*
- jaulki: emakidadunak tituluak jaulkitze (271), *emisión de títulos por el concesionario*
- jesapen, *empréstito*
- kalte-galerak (194), *daños y perjuicios*
- kobratzeko eskubideak eskualdatze (200), *transmisión de los derechos de cobro*
- kontratazio zentralizatu (229)
- kontratazio-espeditze
- onespén, *aprobación*
- presako izapidetze, larrialdiko izapidetze, *tramitación de urgencia, tramitación de emergencia*
- kontratazio-mahai (326)
- kontratazio-organo (323)
- kontratazio-zentral (227)
- kontratu erreserbatu (1. XG)
- kontserbatu: obrak erabiltzea eta kontserbatzea (259)
- kudeaketa-esleipen (6), *encomienda de gestión*
- laga: kontratua lagatze (214), *cesión del contrato*
- lehia-elkarrizketa, (172), *diálogo competitivo*
- lizitazio-prozedura negoziatu (167), *procedimiento de licitación con negociación*
- merkataritza-ustiapeneko eremu-osagarri (260), *zona complementaria de explotación comercial*
- modalitate: obrak egiteko modalitate (252), *modalidad de ejecución de las obras*
- objektu: kontratuaren objektu (99), *objeto del contrato*
- obra-emakidako kontratu (247), *contrato de concesión de obra*
- obra-kontratu (231), *contrato de obra*
- ondorengotza: prozedurako ondorengotza (144), *sucesión en el procedimiento*
- ordainsari: obra erabiltzearen ordainsari (267), *retribución por la utilización de las obras*
- ordeko arautze (297), *regulación supletoria*
- partaidetza-kreditu (277), *crédito participativo*
- pignorazio: eskubideen pignorazio (273), *pignoración de derechos*
- prerrogatiba: administrazioaren prerrogatibak eta eskubideak (261)
- preskripzio tekniko orokorren agiri (123), preskripzio tekniko partikularren agiri (124)
- prestazio gehigarri (205), prestación adicional
- prezio itxiko obrak (241), *obras con precio cerrado*
- prozedura ireki (156), *procedimiento abierto*
- prozedura ireki sinplifikatu (159), *procedimiento abierto simplificado*
- prozedura murriztu (160), *procedimiento restringido*
- publizitaterik gabeko prozedura negoziatu (168), *procedimiento negociado sin publicidad*
- sailkatu: enpresa sailkatu (337), *empresas clasificadas*
- Sektore Publikoko Lizitazaituen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizial (69), *Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público*
- subrogatu: lan-kontratuaren subrogatzeko baldintzak (130), *condiciones de subrogación en contratos de trabajo*
- suntsiarazi, suntsiarazte: kontratua suntsiarazteko kausa (215), *causa de resolución del contrato*, berandutzeagatik kontratua suntsiarazte (195), *resolución por demora*
- zedarritu: zerbitzu-emakidako kontratua zedarritze (284), *delimitación del contrato de concesión de servicios*
- zenbatetsi: kontratuaren balio zenbatetsi (111), *valor estimado (del contrato)*
- zerbitzu-emakidako kontratu (284), *contrato de concesión de servicios*
- zuinketa egiaztatze, zuinketaren egiaztapen (237), *comprobación del replanteo*

Ohar bat adjudikatu eta adjudikazio hitzez. Euskaltzaindiaren Hiztegian, *adjudikatu* eta *adjudikazio* sarreerek, hurrenez hurren, *esleitu* eta *esleipen* definizio-hitzak dakartzate, besterik gabe; pentsatu behar dugu, beraz, azken horiek hobesten direla. Baina, bestalde, *adjudikaziodun* jaso dago eta *esleipendun ez*. Nire ikuspegitik, duela zenbait urte Hiztegi Batuan *adjudikatu-adjudikaziodun* familia osoa sartzeak eragina izan du urteotako terminologian, eta horren lekuko da Euskalterm: gaur egun, *adjudika*- erroa bakarrik dago termino horientzat, eta *esleitu* eta *esleipen*, berriz, *asignar/affecter* eta *asignación/affectation* adierarekin ageri dira. ■

Bularreko minbiziaren aurkako borroka

MARÍA DM VIVANCO
BIOGUNE IKZ


70eko hamarkadan, bularreko minbizia diagnostikatu zitzairen emakumeen % 40k bakarrik espero zezaketen beste 10 urtean bizitzea. Gaur egun, emakumeen ia % 80k lortzen dute mugarri esanguratsu hori herrialde garatu gehienetan. Aurrerapen nabarmen horrek bizi-itxaropen handiagoa izateko aukera eman die bularreko minbizia duten pazienteei.

Hain zuzen ere, azken urteotan ikerketan egin diren aurrerapenei esker, bularreko minbiziak eragindako heriotza-tasa murriztu egin da. Hala ere, gaur egun, bularreko minbizia da oraindik minbiziaren ondoriozko lehen heriotza-kausa emakumeen artean (% 16,2). Beste alde batetik, intzidentzia-tasa goraka ari da, eta, gaur egun, zortzi emakumetik batak bularreko minbizia izango du bizitzan zehar. Espainian, 32.825 kasu berri diagnostikatu ziren 2018an (% 30eko igoera, 2012. urtetik hona), eta, gure autonomia-erkidegoan bertan, bularreko 1.600 minbizi-kasu berri izaten dira urtero (emakumeen minbizi-kasu guztien % 27,4). Tumore-heterogeneotasunari buruzko ikerketak asko lagundu ahal digu gaixotasun horren aurkako borrokan aurrera egiten.

Bularreko minbizia oso gaixotasun heterogeneoa da. Konplexutasun hori ez da mugatzen pazienteen arteko desberdintasunetara (desberdintasun horien sailkapena asko hobetu da gene-profilei esker, zeinen bidez pronostiko oso zehatzak egin ahal baitira). Aitzitik, konplexutasun hori tumore bakoitzari ere lotu dakioke, eta hori berebiziko erronka da minbiziaren tratamendu klinikorako. Nahiz eta bularreko minbiziaren aurkako hainbat terapia eraginkor egon, paziente askoren kasuan tratamendu horiek ez

dute funtzionatzen, edo, denborarekin, eraginkortasuna galtzen dute, eta berriro agertzen da tumorea edo errezidiba. Horregatik, funtsezkoa da ulertzea zergatik agertzen diren berriro tumore batzuk denbora pasa ondoren, eta zertan diren desberdinak tratamenduei ondo erantzuten dieten eta betiko desagertzen diren tumoreen aldean.

Tumore barruko heterogeneotasunari buruzko azterlanek erakutsi dute tumoreen zelula gutxi batzuek zelula amen ezaugarriak dituztela; zelula ama minbizi-eragileak dira zelula horiek (*cancer stem cells*, CSCak, ingelesezko siglen arabera). CSCen ezaugarrietako bat da irauteko gaitasuna (auto-berrikuntza), eta horrek aukera ematen die tumore bat sortzeko eta zelula-populazio desberdinak sorrarazteko (diferentziazioa). Horren ondorioa da, hain zuzen ere, tumoreetan ikusten dugun heterogeneotasuna. Bularreko zelula amak identifikatzeak, ehun osasuntsuan nahiz minbizia duen ehunean, gaixotasunari begiratzeko beste modu bat ekarri du, eta, horrekin batera, gaixotasuna prebenitzeko, pronostikoak egiteko eta tratamenduak aurkitzeko itxaropena. Bularreko tumoreek, baldin eta maila handikoak, diferentziazio gutxikoak eta erasokorrakoak badira, CSCen proportzio handiagoa dute, ondo diferentziazituta dauden eta pronos-



tiko hobia duten tumoreen aldean. Azterlan askok erakutsi dutenez, zelula horiek eragiten dute tumorea, eta, gainera, erresistentzia handiagoa dute gaur egun klinikan erabiltzen diren terapien aurka eta, beraz, berriro eragiten dute minbizia. Tumorearen biologiarri buruzko ikerketak asko lagundu du erresistentzia-mekanismo horietako batzuk ulertzen; adibidez, hormona bidezko terapiaren aurkako erresistentzia.

Bularreko kartzinomen %70-75ek, gutxi gorabehera, ER estrogeno-hartzailerik positiboa dute (ER+), eta, oro har, pronostiko hobia dute ER negatiboa (ER-) duten tumoreek baino. ER+ tumorea duten pazienteek hormona bidezko terapia ematen zaie, hala nola tamoxifenoa (ERren antagonista bat) edo aromatasaren inhibitzaileak (estrogenoak ekoiztea galarazten dute). Terapia horiek, azken hamarkadetan, milioika emakumeren bizi-kalitatea eta biziraupena hobetu dituzte. Halere, terapia horren arrakasta mugatua izan da haren aurkako erresistentzia garatu delako, eta egoera horrek ahalegin handia eskatu du azken urteotan erresistentzia hori eragiten duten mekanismo molekularrak argitzeko. Errezidibek pronostiko okerragoa izan ohi dute; lehen mailako tumoreak baino erasokorragoak dira, eta diferentziazio-maila txikiagoa dute, eta, batzuetan, metastasiak ere agertzen dira, eta hori arazo kliniko larria da.

Gure laborategian berriki egindako ikerketek erakutsi dute tamoxifenoarekiko

erresistentek diren tumoreek CSCen proportzio handiagoa dutela. CSC zelulek ez dute estrogeno-hartzailerik, eta hori aurkikuntza garrantzitsua izan da; izan ere, hartzailerik ez dutenez, ez dute tamoxifenoaren antiugalkortasun-efekturik jasaten, eta, hartara, terapia saihesten dute. Gainera, terapiarekiko erresistentzia duten zelulek gaitasun inbaditzaile handiagoa eta ezaugarri erasokorragoak dituzte, baita Sox2 proteina-maila handiagoak ere. Proteina hori beste zelula ama mota batzuetan ere agertzen da. Beste alde batetik, bularreko minbizia zuten pazienteekin egindako atzera begirako azterketa batek egiaztatu zuen (paziente horiei tamoxifenoa eman zitzaizen hormona bidezko terapia gisa) Sox2-mailak baxuak zirela terapiari ondo erantzun zieten pazienteen bularreko kartzinometan. Aitzitik, tratamenduari erantzun ez zioten pazienteen lehen mailako tumoreek jadanik Sox2 proteina-maila altuak zituzten eta, gainera, Sox2-mailak nabarmen egiten zuen gora errezidibetan. Bularreko minbizian hormona bidezko terapiarekiko erresistentzia antzemateko Sox2 proteinak biomarkatzaile gisa duen gaitasuna azpimarratzen dute emaitza horiek. Halaber, beste ikertzaile batzuek balio prediktiboa duten beste proteina batzuk ere aurkitu dituzte. Egia da datu horiek guztiak paziente-kopuru handiago batekin egiaztatu behar direla, baina biomarkatzaileen identifikazioa aurrera doa.

Biomarkatzaileek oso laguntza garrantzitsua ematen diote talde klinikoari bularreko minbizi azpimota jakin ba-

tzuk dituzten pazienteak aukeratzeko, bai terapia mota jakin bati erantzuteko aukera handiagoak dituzten pazienteak, bai errezidibak izateko arrisku handiagoa dutenak. Izan ere, tumoreen biologiarri buruz gero eta gehiago jakiteak pazientek bakoitzarentzat eraginkorrenak diren tratamenduak aukeratzeko gaitasuna handitzen du, eta, bide horretan, gero eta gertuago gaude doitasun-medikuntzatik. Biziraupena hobetzea da onkologiako doitasun-medikuntzaren helburua, tratamenduari erantzuteko aukera gehiago dituzten paziente-taldeak aukeratu.


Ikerketari esker, gero eta hobeto ulertzen dugu tumorearen heterogeneotasuna, baita nola jokutzen duten zelula mota desberdinek ere, eta ezagutza-oinarriak ezartzen ari dira tumoreen konplexutasunari aurre egiten dioten estrategia berriak identifikatzeko. Gaur egungo terapiak zelula jakin batzuetara (CSCetara, adibidez) zuzendutako tratamendu berriekin konbinatuz gero, aukera dago errezidibarik ez izateko eta tumorea behin betiko desagerrarazteko.

Borrokak aurrera darrai, baina etorkizuna itxaropentsu ikusten dugu. Gero eta eraginkorragoak eta selektiboagoak diren agente espezifikoak eta konbinaketa-tratamenduen garapenak, prebentzio-neurriekin batera, terapia eraginkorragoak eta seguruagoak ekarriko ditu, maila indibidualean eta kolektiboan, eta etengabe hobetuko ditu bularreko minbizia duten pazienteen biziraupena eta bizi-kalitatea. ■

Hitz gezidunak

	Barazki mota		* DEITURA	Zatitan egina	Kolore mota	Arabako Aiaraldeko udalerria
	Harritua		Jatorri atzikia	Nekadura	Sortzetiko gaitza	
	Berri emaile					
Suntsitu	Buruaz beste egiteko					
* IZENA	Beltzak					
			Tema			Röntgen
			Arazoa			Gazte eder
Bidea				Urrea		Galioa
Eragingarria				Ate, hitz elkarketan		Lehor
					Gipuzkoako herria	
					Beldur	
Indioa		Igarle			551	
Arlo		Musika nota			Kriptona	
			Joan den urtekoak			
			Kontsonantea			
Izana				X. hila		

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Ipar Euskal Herriko herrialdea
2. Ugaztunen digestio hodiaren zati zabal
3. Zehaztu gabeko pertsona bat izendatzeko erabiltzen den hitza
4. Italiako diru zaharra
5. Jardun
6. Ahariaren eme
7. Sosa
8. Itsasoaren kolorea eguzkia denean
9. Metal gris gogorra

SOLUZIOAK

Z	U	A						
Z	T	A	R	I	A	R	G	A
R	O	N	E	K	I	R	A	I
E	S	K	A	R	A	S	E	A
E			H	A	R	O	A	U
			T	X	I	L	U	I
			I	A	K	I	N	A
					A	T	A	U

1. Lapurdi
2. Urdail
3. Urtia
4. Lira
5. Ari
6. Ardi
7. Dirua
8. Urdina
9. Burdina

Hitz gezidunak

Goitik behera

EBko Zuzenbidearen
Aplikazio Judizialari buruzko

III. JARDUNALDIAK

«Europar Batasuneko zuzenbidearen eragina Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan»

2019ko maiatzaren 9a

(IVAP, BJKN, ERASMUS + JEAN MONNET KATEDRA)

Zuzendariak:

Ricardo Alonso García

Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena

Miramar Jauregia
Miraconcha pasealekua, 48
DONOSTIA



Consejo General
del Poder Judicial



Ezagutzen duzu

zer0,7?

FONDO SOLIDARIOA

Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzako 730 langile-bazkide gara; eta gure nominako % 0,7arekin (20€ hilero gutxi gorabehera) finantzatzen ditugu munduko 15 herrialde txiroenetan garatutako proiektuak.

Hemen eskuratu dezakezu bazkide izateko eskaera-orria:

http://www.zer07.org/solicitud_gv_eus.pdf

**ANIMA ZAITEZ,
EGIN BAZKIDE!!**



http://www.zer07.org/index_e.htm



zer0,7

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioeuskaraz@ivap.eus

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta